

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia

Euskararen Aholku Batzordeak
1998ko ekainaren 24ko Batzorde Osoaren bileran
aho batez onetsitakoa

Eusko Jaurlaritzaren 1998ko uztailaren 28ko Gobernu
Batzordeak onartutakoa

AURKIBIDEA

Atarikoak.....	7
I. Aurrera begira	9
II Bete daitekeen plana.....	11
Lehen zatia.....	15
I. SARRERA.....	17
II. EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA-POLITIKEN ERAGINKORTASUNARI BURUZKO AZTERKETA.....	19
III. EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA.....	21
IV. EUSKARAREN INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK.....	23
IV.1. Sarrera.....	23
IV.2. Irizpideak.....	24
IV.3. Indarguneak.....	25
IV.3.1. Irakaskuntza	25
IV.3.2. Familia.....	26
IV.3.3. Aisia.....	27
IV.3.4. Kirola	27
IV.3.5. Kulturgintza.....	28
IV.3.6. Telebista.....	28
IV.3.7. Irratia	29
IV.3.8. Prentsa idatzia.....	30
IV.3.9. Liburugintza	30
IV.3.10. Publizitatea	31
IV.3.11. Euskalduntze-alfabetatzea.....	31
IV.3.12. Enpresa-mundua	32
IV.3.13. Erljioa.....	33
IV.3.14. Administrazioa.....	33
IV.3.15. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea.....	34
IV.4. Ahuleziak	34
IV.4.1. Irakaskuntza	34
IV.4.2. Familia.....	35
IV.4.3. Aisia.....	36
IV.4.4. Kirola	36
IV.4.5. Kulturgintza.....	36
IV.4.6. Telebista.....	37
IV.4.7. Irratia	37
IV.4.8. Prentsa idatzia.....	38
IV.4.9. Liburugintza	38
IV.4.10. Publizitatea	39
IV.4.11. Euskalduntze-alfabetatzea.....	39
IV.4.12. Enpresa-mundua	40
IV.4.13. Erljioa.....	40
IV.4.14. Administrazioa.....	40
IV.4.15. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea.....	41

IV.5. Hizkuntza-politikarako egungo giza eta diru-baliabideak	42
Bigarren zatia	47
V. HIZKUNTZA-POLITIKAN ERAGITEN DUTEN ALDAGAIK: INGURUTIK DATOZKION MEHATXUAK ETA AUKERAK	49
V.1. Mehatxuak	49
V.2. Aukerak.....	50
VI. DATOZEN HAMAR URTEETARAKO ERRONKA NAGUSIAK	51
VI.1. Helburu nagusia	51
VI.2. Helburu estrategikoak	51
VI.2.1. Euskara ondorengoetaratzea	52
VI.2.2. Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza	52
VI.2.3. Euskararen elikadura	52
VI.3. Helburu zehatzak eta egitasmo-proposamenak	53
VI.3.1. Euskara ondorengoetaratzea	53
VI.3.1.a. Irakaskuntza	53
VI.3.1.b. Euskalduntze-alfabetatzea.....	54
VI.3.1.c. Familia bidezko jarraipena	55
VI.3.2. Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza	55
VI.3.2.a. Administrazioa	57
VI.3.2.b. Gune euskaldunenak.....	57
VI.3.2.c. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak	58
VI.3.2.d. Enpresa-mundua	59
VI.3.2.e. Aisia.....	59
VI.3.2.f. Kirola	60
VI.3.2.g. Erlijioa.....	60
VI.3.3. Euskararen elikadura	61
VI.3.3.a. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea.....	61
VI.3.3.b. Prentsa idatzia	61
VI.3.3.c. Liburugintza	62
VI.3.3.d. Irratia	62
VI.3.3.e. Telebista	62
VI.3.3.f. Publizitatea	63
VI.3.3.g. Kulturgintza.....	63
VII. HIZKUNTZA-POLITIKARAKO BEHAR DIREN GIZA ETA DIRU-BALIABIDEAK.....	64
Hirugarren zatia.....	67
VIII. EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA GAUZATU ETA HORREN JARRAIPENA EGITEKO URRATSAK	69
IX. EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA EGITEKO PROZEDURAREN AZALPENA	71
IX.1. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia burutzeko emaniko urratsak	71
IX.2. Azpibatzerdeak eta kideen zerrenda.....	73
Eranskina.....	85
Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko ekainaren 18ko 156/1996 Dekretua	87

ATARIKOAK

AURRERA BEGIRA

Nabarmena da euskarak hogeitortan egin duen aurrerakada. Gure aurrekoek, urte zailetan, egin zuten lan eskerga gogoan izatekoa eta eskertzekoa bada ere, 1979ko Autonomia Estatutuak hizkuntza ofizial aldarrikatu zuenetik bistakoak dira euskarak egin dituen urratsak, eskaini zaizkion lege-babesari, baliabideei, laguntzei, ahaleginei, atxikimenduei eta abarri esker.

Aginpidea eskuratu bezain azkar heldu zitzaion euskara finkatzeari, batzeari eta esparru guztietan erabiltzeari eta alor guztietara hedatzeari, euskal irrati-telebistak sortuz, hezkuntza euskalduntzeko ereduak moldatuz, helduen alfabetatzea eta euskalduntzea sendotuz. Egia esan, eskarmentu handirik gabe ekin genion euskararen beraren garapenari eta normalizazioari. Baina, oro har, neurri eta bide egoki samarretik ibili garela erakutsi digu denborak.

Horretan, jakina, ezinbestekoak izan dira Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia eta Euskararen Aholku Batzordea. Borondate oneko eta ezaguera handiko euskaltzale haiei esker baretu eta bateratu ahal izan ziren euskararen inguruan sortutako haserreak eta iritzi kontrajarriak. Hasierako Euskararen Aholku Batzorde hark izugarri lagundu zuen batuaren eta euskalkien arteko katramilak askatzen, hezkuntza-ereduak finkatzen.

Ereindako giro on horri eta elkarrekin finkatutako irizpide bateratu haiei esker sendotu zen Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia. Halaber, eraldatu eta indarberitu Euskararen Aholku Batzordea, soziolinguistikan eta euskalgintzan ziharduten jendez osaturik. Eta urrats berriak egin ziren: Euskaltzaindiarekin eta euskara gaurko premietara egokitzen zihardutenekin hitzarmenak, Administrazioa euskalduntzeko neurriak eta abar.

Azken aldi honetako Euskararen Aholku Batzordeak, berriz, orain argitaratu den Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia burutu du, orain arte egin dena arakatu ondoren. Horretarako gogoeta eta eztabaida sakonak egin ditu. Lehenik, jakina, egin dena aztertzeko eta baliesteko euskararen indarguneak eta ahuleziak non dauden, zein alorretan, zein eskualdetan, zehaztu du, argi eta garbi. Azkenik, erremedioak eskaintzen ahalegindu da: susperraldirako proposamenak eskainiz, irizpideak, lehentasunak, baliabideak eta abar finkatuz.

Ezinbestekoa zen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, indarrak biltzeko, irizpideak finkatzeko, indarguneak sendotzeko, ahuleziak konpontzeko, betiko okerretan ez jausteko eta elkarlana bideratzeko eta indartzeko. Euskararen normalizazioak ezinbestekoa du horrelako plan estrategikoa, argia eta zehatza.

Erronka handiak ditu oraindik euskarak. Datozen hamar urteotako nagusienei erantzun nahi die Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak. Ildoak eta bideak finkaturik daude. Beharrezkoak dituen baliabideak ere lortuko dituela uste dugu. Denon borondate onik eta guztion arteko elkarlanik ere ez zaiola faltako espero dezagun. Guztiona den euskarak guztion beharra baitu.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia ez da bakar baten burutapena, ez da argialdi bateko distira ere, askoren arteko gogoeta, burubidea eta egitasmoa baizik. Iritzi desberdinetako jendeak burutua da. Elkarrekin adostua. Ez da nolana baztertzekoa, beraz. Alderantziz, guztiok onartzeko litzateke.

Tresna baliagarria da. Guztion esku da, noski, jori eta emankor bihurtzea. Guztion ahaleginari esker izango da arrakastatsu edota guztion erruz alfer. Ilunaldietan eta zalantza artean ere aurrera egin badugu, are eta errazago egin beharko genuke eskarmentu eta argi gehiago dugun garai hauetan. Horixe nahiko genuke guztiok.

M. Carmen Garmendia Lasa
Kultura sailburua

BETE DAITEKEEN PLANA

1998ko uztailaren 28an, Gobernu Kontseiluak onartu eta bere egin zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Euskararen Aholku Batzordeak urte bereko ekainaren 24an burutu eta onarturiko plana. Esan dezadan pozgarri zaidala bi egintza horiek – Gobernuarena eta Aholku Batzordearena– Lehendakari gisa izan dudan agintaldiaren amaierarekin batera gertatu izana; izan ere, nire agintaldiko hamalau urteetan euskaldunen eta elebitasunaren alde erakundeetatik egindako lanari nolabaiteko amaiera zoriotsua emateko modua da.

Esan gabe doa, beraz, Planaren argitalpenari hitzaurrea idatzita herritarrei aurkezteko eskatu didatenean, ohore handia izan dela niretzat. Bene-benetan esker onez hartu dut “kargu osteko” zeregin hau.

Orain argitara den Euskara Biziberritzeko Plan Nagusi honek helburu handiak ditu, baina betetzeko moduko helburuak. Metodologia zorrotzaz egin dute, taxutu eta onartzeko prozesu osoan nagusi izan diren irizpide eta konbikzio politikoetan oinarri hartuta. Alderdi horietako bakoitzari buruzko azalpen laburra egingo dut, jarraian.

Helburuei dagokienez, esan beharrekoa dugu, lehenik eta behin, Aholku Batzorde eraberrituak oinarri sendoa aurkitu zuela bere lanari ekitean. Ordurako, aldendua genuen euskararen egoerari eta etorkizunari buruzko larritasuna, duela hogeitau urte, Gernikako Estatutuan euskara hizkuntza ofizial izendatu zenean, geneukan larritasun hura hain zuzen; Harrezkero Batzordekideek ez zuten, behintzat, euskarari iraunarazteko borrokatu beharko, hizkuntza hau hil hurren izan genuen 70eko hamarkada hartan izan zitekeen bezala. Euskararen Aholku Batzorde berria Plana taxutzen hasi zenerako, euskara arrakastaz ezarrita zegoen hezkuntzan, batez ere unibertsitatez kanpokoan; indarrez sartua zen hedabideetan, batik bat publikoetan; herri-erakundeetan baziren jadanik euskara sustatzeko planak; kalitate bikaina eta zabalkunde handia lortuak zituen literaturako adierazpideetan; eta –are garrantzitsuago– euskara jakiteak prestigio soziala eta intelektuala zekarren, eta egiaz elebidun izatea zen herritar gehienek lortu nahi zuten eta epe luzera lor zezaketen helburua. Planak berak birritan esaten duenez, euskara, historian estreinako aldiz, ez zihoan atzera, aurrera baizik, gizartean eta lurretan.

Oinarriak, bada, sendoak ziren. Egindako lana, itzela. Emaitzak, guztiz pozgarriak, batez ere duela hogeitau urte genuen larritasun hura kontuan hartuz gero. Aholku batzordekideek burutu beharreko lehenengo egitekoa, hortaz, jadanik eginda zegoen lana balioztatzea zen, hasitako jardueretan indarguneak eta ahuleziak zein ziren atzemateko helburuz. Balioztatze-lan horrek, euskararen transmisio- eta erabilera-arlo guztiak aintzat hartuta, Planaren lehen zati osoa betetzen du. Aipatzekoa da zeregin horretan batzordekideek izan duten zorrotzasun eta zintzotasun intelektuala, ez baitiote inolako tarterik utzi boluntarismoari edo dagoeneko lortutakoa goraiptazeari. Aurrerapenak agerian ipini dituzte, baina hutsarteak eta estropezuak ezkutatu gabe. Analisiaren zorrotzasun hori da, agian, egileei gehien eskertu behar dieguna, horixe delako bigarren zatian emandako proposamenek bideragarriak izateko duten bermerik onena.

Planaren bigarren zatiak, bada, lehenengo zatian hizkuntzaren erabilera balioztatzeko erabili diren arlo berberei jarraiki analisisa xehatuz, datorren hamar urtean egin beharreko jardueretarako proposamen zehatzak egiten ditu, zenbatu eta neurtu ere egin daitezkeen helburuak ipiniz. Proposamen horiek iraganean lortutakoa baino harago doaz, eta euskararen transmisioak, erabilerak nahiz kalitateak dakartzaten arazoetan barneratzen saiatzen dira; betiere, kontuan izanik gaur egungo munduan hizkuntza –edozein hizkuntza– erabat erabilgarritasunaren menpe dagoela, eta hizkuntzaren erabilerari eutsi ezineko indarrak eragiten dioten teknologia berrien menpe. Ildo horretan, Planak, nolabait esateko, ez du lurralderik utzi nahi euskararen eremutik eta erabileratik at; hizkuntza normalizatua izatera iristea nahi dugunez, pertsonaren eta gizartearen bizitzako alderdi guztietan dagoeneko ohiko komunikazio hizkuntza balitz bezala jokatu behar dugu harekin.

Nire ustez, boluntarismoan jausi gabe, asmo handiak izateak, hain zuzen ere, eragingo dio euskarari, edo –zehatzago esan dezagun– euskalduneriari, erabilera eragozten duten konplexu guztiak kentzea eta bere hizkuntza arlo guztietan benetako komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea. Ohargarria da, alde horretatik, eta onerako izan ere, Planaren egileek, euskara gorde beharreko “ondare” gisa ikusten duen ohiko ikuspegia alde batera utzi, eta subjektutzat euskaldunari begiratu izana, hau da, euskaraz mintzo denari begiratu izana. Pertsonari begiratzen dion ikuspegi hori garbi ageri da hasieratik, proposamenen funtsezko helburua finkatzen den unetik beretik. Helburua da, izan ere, “...euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea... maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean”. Hizkuntza honetan mintzo dena, hartara, normalizazioaren ia subjektu bakarra izango da, eta auzia, ondorioz, hizkuntzaren jabe diren gizakiei dagozkien eskubide subjektiboen esparruan izango da.

Alabaina, Planaren asmo diren helburuak garrantzi handikoak izanagatik, garrantzi berekoa dugu Planean jarraitutako metodologia ere. Labur beharrez, alderdi bat baino ez dut nabarmenduko. Dagoeneko aipatu dut Aholku batzordekideek beren analisisan erakutsi dituzten zorrotasun eta zintzotasun intelektualak. Orain, guztien parte hartzeaz lan egin izana ohartarazi nahi dut, horrela Plana aho batez onartu ahal izatea ahalbidetu baitute. Hori ez da inondik ere huskeria, politikan eta gizartean hainbesteko sentiberatasuna sorrarazi duen gai honetan. Euskararen Aholku Batzordean bildu direnen sentikortasunak askotarikoak direla jakinik, gorestekoa da batzordekideek elkar hartu eta bat etortzeko izan duten ahalmena. Horixe da, berriz ere, bermerik onena, Plana aurrera ateratzeko ez ezik, plan osatzaile eta bateratzailea izateko ere. Nire iritzira, gure gizarteak ondo barneratu du elebitasuna politikako liskarretatik kanpo geratu behar dela, eta geure bi hizkuntzetako hiztunak ezagutu, errespetatu eta sustatu egin behar direla. Denek onartzen dute, gainera, euskaldunek, gutxiengoa direlako eta zailtasunez beteriko historia luze eta goibela izan dutelako, bultzada berezia merezi dutela, beren hizkuntza- eskubideak gero eta berdintasun handiagoko egoeran erabiltzeko aukera izan dezaten. Plana aho batez onartu izana gizartearen kontzientzia horren erakusgarri da; eta, tentua eta erabakitasuna zuhur uztartuz, kontzientzia hori gauzatzen saiatzen da. Horrela, guztien eskubideak errespetatzen dira, eta gutxiengoaren eskubideak era positiboan

sustatzen. Politika horri “bereizketa positiboa” deritzo, eta bere gogoz onartu du Euskadiko gizarte osoak.

Azkenik, labur aipatuko ditut Plana behin betiko onartu arte Plana taxutzeko jarraibide izan diren irizpideak. Planaren egileek esplizituki jaso dituzte, eta honako hauek dira: planteamendu demokratikoak errespetatzea, ahulenaren aldeko ekintza positiboa egitea, euskara hizkuntza propiotzat ezagutzeta eta botere publikoak eta gizarte-ekimena elkarren osagarri izatea.

Alde batera utziko ditut, ez hutsalak direlako, baizik eta lekurik ez dudalako, lehendabiziko hirurak, baina argi azaldu nahi dut laugarrenaren garrantzia, labur-labur. Hizkuntza baten aurrerakuntza, edozein hizkuntza dela ere, hiztunen menpe dago batik bat. Erakunde publikoek, eurek bakarrik, ezin dute hizkuntza-komunikazio tresna bizia izan dadin hura garatu eta sustatu. Noraezekoa da euskaldunek eraturako gizarte-taldearen partehartze aktiboa, eta partehartze hori betiere ondo hartuko dute erakunde publikoek. Izan ere, plana egin eta onartu duen Euskararen Aholku Batzordea gizartearen partehartze horren erakusgarri esanguratsu eta askotarikoa baino ez da.

Hala ere, erakunde publikoek ez lukete ahaztu behar, horregatik, euren gain duten erantzukizuna, bai plan zuzentzaileak taxutzeari dagokionez, eta bai herritarrei edozein arlotan erabakitzen duten hizkuntzan mintzatzeko eskubidea bermatu ahal izateko neurriak sustatzeari dagokionez. Erakunde publikoen betebeharrak utziezina da, hiritar guztien legezko ordezkari diren aldetik, guztien hizkuntza-eskubideak zehatz-mehatz errespetatu daitezkeen zaintzea, eta eskubide horiek benetan eta berdintasunez aplikatu daitezkeen sustatzea.

Lankidetzako ingurune horretan, alde guztiek euren eskubideak eta eginbeharrak gogo onez betetzen dituztelarik, euskarak gero eta atxikimendu aktiboagoak eta arduratsuagoak piztu ahal izango ditu, eta guztiok nahi dugun eta legediaren beraren asmoa den elebitasuneko egoera hori iritsiko da.

Eta, bukatzeko, gogoeta bat egin nahi dut. Gaurko euskaldunen belaunaldiari, milurteko gorabeheren ondoren, hizkuntza-ondare berezia iritsi zaigu. Bizitzea egokitu zaigun kultur mundu orokortuan, ondare horrekiko aukera transzendentalari erantzun behar diogu. Aukerarik errazena uniformizazio gisako orokortasunari men egitea litzateke; arduragabekeria balitz ere gure aurrekoekiko, gure seme-alabekiko eta gure buruarekiko. Arduraz jokatu behar dugu, zailena hori bada ere, eta horrek dakar gure hizkuntza-berezitasuna nahitaez globalizaturiko munduaren aniztasunerako ekarpen modura ulertzea, eta ez ezinbestez galtzera kondenatuta dagoen zer edo zer bezala. Euskal hiztun asko ez bagara ere, mundu globalizatu horretako kultura murriztu egingo litzateke gure hizkuntza hitz egingo ez balitz. Gurea, euskaldunona da, beraz, giza kultura aberastearen edo murriztearen erantzukizuna. Jakin, badakit, aberastearen aldeko apustua egingo duguna.

Amaitzeko, adieraz diezaiedan bihotz-bihotzez nire esker ona Euskararen Aholku Batzordeko kideei, egin duten lan garrantzitsuagatik. Planeko aurreikuspen eta proposamenak, eragindako guztien lankidetzaz eskuzabal eta arduratsuz bete daitezela nahi nuke, benetan ere.

José Antonio Ardanza Garro
Lehendakari ohia

LEHEN ZATIA

I. SARRERA

Euskara EAEko hizkuntza ofizial egin zuen, duela ia 20 urte, Autonomia Estatutuak.

1999an egingo ditu hogeit hamar urte euskara Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial aldarrikatu zuen Autonomia Estatutuak (EAE, 1979). Euskarari ofizialtasuna aitortzearekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortu zitzaizen herritar guztiei. 1979tik hona, hainbat arau eta erakunde egin eta eratu dira euskararen gaitasuna, erabilera eta statusa berreskuratzeko Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean. Iparraldean, aitzitik, euskararen aldeko neurri-tako bakan batzuek bakarrik ikusi dute argia.

Euskarari hain beharrezkoa zitzaien erakundeen babesa eskaini zion, EAEn, Euskararen Legeak.

Euskal Autonomia Erkidegoan hartutako neurri garrantzizkoenetako bat Euskararen Erabilera Arauzkotze-zko 10/1982 Oinarrizko Legea izan da. Lege horrek hizkuntza-politikako ekimenak garatzeko bidea zabaldu zuen, gizarteko eremu giltzarrietan euskararen ezagutza eta erabilera berreskuratzeko euskarari hain beharrezkoa zitzaien erakundeen babesa eskainiz. Honako hauek dira euskararen erabilera normalizatzeko 1979az geroztik hona eratu diren erakundeak eta indarrean jarritako arauak: Euskararen Aholku Batzordea (1982), Euskal Irrati Telebista (EITB, 1982), EAEko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzeko uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua (1983), Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE, 1983), Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE, 1983), Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia (1983), 1995ean Hizkuntza Politikarako Sailordetza bilakatu zena, eta Euskal Herri Administrazioetako Hizkuntza Normalkuntzarako Plana (1989). Oro har, EAEn hartutako neurriak irakaskuntzan, komunikabideetan, herri-administrazioetan eta kulturgintzan euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeari begira taxutu ziren.

1982az geroztik euskara ofiziala da Nafarroako eremu euskaldunetan.

Nafarroan, Foru Eraentza Legea 1982an sartu zen indarrean eta Nafarroako eremu euskaldunetan ofizial egin zuen euskara. 1986an Euskararen Legea onartu ondoren, Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Idazkaritza eratu zuen 1988an, 1991n, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusi bilakatu zena. Gobernuak eremu euskaldunetarako hartu zituen neurriek irakaskuntza-sisteman euskararen ikaskuntza bideratzea eta herri-zerbitzuetan, kultur jardueretan eta komunikabideetan euskara erabili ahal izateko esparru instituzionalak ezartzea zuten helburu.

Frantzian, eskualde-hizkuntzak gutxietsi egin izan dira eta hizkuntza

Frantzian, berriz, euskararen, bretoiaren eta okzitanoaren tankerako eskualde-hizkuntzen inguruan, Frantziako Iraultzaz geroztik batez ere, ez da hizkuntza gutxituen aldeko politikarik egin. Eskualde-hizkuntzak

hezkuntza-sistematik, herri-administrazioaren maila guztietatik eta komunikabideetatik kanpo utzi.

gutxietsi egin izan dira eta hezkuntza-sistematik, herri-administrazioaren maila guztietatik eta komunikabideetatik kanpo utzi. Hala ere, 1951n, "Deixonne Legea" zela eta, eskualde-hizkuntzen irakaskuntza baimendu zen, baldin eta ikasleek Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak araututako eskola-programa frantsesa betetzen bazuten aldi berean. Dena den, hori aukerakoa zenez, ez zen diru-baliabiderik jarri frantseseko derrigorrezko programaz gain euskarazko irakaskuntza ematen zuten Estatuko ikastetxeentzat. Beraz, gurasoek jartzen zuten horretarako behar zen diru guztia: eraikinen kostua eta mantenimendua, irakasleen soldatak eta eskola-garraioa. Baina 1994an, frantsesez eta euskaraz irakasteko gaitasun-agiria zuten Hezkuntza Nazionaleko irakasleen soldatak ordaintzea erabaki zuen Gobernu Zentralak. 1990ean eratutako Euskal Kultur Erakundeari urtero ematen zaion diru-kopurua kenduta, Frantziako Gobernuak ez du bestelako neurririk hartu euskararen tankerako eskualde-hizkuntzak onestearen alde.

II. EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA-POLITIKEN ERAGINKORTASUNARI BURUZKO AZTERKETA

Euskara biziberritzeko hizkuntza-politikako neurriek ondorio onuragarriak izan dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, neurri txikiagoan bada ere, baita Nafarroan ere. Aitzitik, Iparraldean euskara jasaten ari den etengabeko galera bortitza begi-bistakoa da.

EAE n eta Nafarroan euskara biziberritzeko taxututako hizkuntza-politiken esparru luze-zabala kontuan, lurralde horietan egin da ikerketa demolinguistiko eta soziolinguistiko gehien euskarak gaztelaniari begira duen tokia neurtzeko: ugariak izan dira indarrean dauden hizkuntza-politiken eraginkortasuna aztertzeko, gizabanakoek zein gizarteko elkarte-erakunde desberdinek eta herri-aginteez egin dituzten ahaleginak. 1989an, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko Soziolinguistikazko I. Mapa argitaratu zuen 1986ko Zentsuko datuetan oinarrituta. Emaitzak oso argigarriak izan baziren ere, Soziolinguistikazko Mapak erakutsi zuen euskararen ezagutzaren eta erabileraren gaineko azterketa zehatzagoa eta dinamikoagoa behar zela, aurrera begirako hizkuntza-politiken ildo nagusiak finkatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan ez ezik, baita Nafarroan eta Iparraldean ere. Hortaz, 1991n Soziolinguistikazko Inkesta zabala egin zen Euskal Herri osoan: Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Iparraldean. Inkesta horren inguruko emaitzak 1995ean argitaratu ziren *Euskararen Jarraipena* izenburupean. Euskarazko irakaskuntzak Euskal Herriko gazte eta helduen euskara-gaitasunean eta erabileran izandako eragina bigarren soziolinguistikazko ikerketan neurtu zen, 1996an egindako inkestan hain zuzen. Bigarren inkesta hori Eusko Jaurlaritzak burutu zuen Nafarroako Gobernuaren eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundearen lankidetzaz, Europako Batzordeak babesturik. Emaitzak 1997an kaleratu ziren *Euskararen Jarraipena II* izeneko argitalpenean. Emaitzak erakusten dutenez, euskara biziberritzeko hizkuntza-politikako neurriek ondorio onuragarriak izan dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, neurri txikiagoan bada ere, baita Nafarroan ere. Inkesta berak, berriz, agerian jarri du Iparraldean euskara jasaten ari den etengabeko galera bortitza.

Oro har, EAEko eta Nafarroako gobernuek bultzatutako soziolinguistikazko ikerketak euskararen aldeko hizkuntza-politikak gauzatzeko duten borondatearen erakusgarri dira. Frantziako Gobernuak, ostera, 1992an aldarrikatu berri du frantsesa dela Frantziako hizkuntza ofizial bakarra. Espainiak ez bezala, ez du izenpetu Hizkuntza Gutxiengotuen aldeko Europako Ituna¹.

¹ XXXX XXXXX XXXXX XXXXX XXXXX

Soziolinguistikazko ikerketak eta zentsuko datuak dira antolatzen diren hizkuntza-politiken eraginkortasuna neurtzeko oinarritzko tresnak.

Soziolinguistikazko ikerketak eta zentsuko datuak dira hizkuntza gutxiengotuak biziberritzeko antolatzen diren hizkuntza-politiken eraginkortasuna neurtzeko oinarritzko tresnak. Euskal Herrian erabakitako hizkuntza-politiken eraginaren adierazlerik egokienak bi dira: euskara-gaitasunari eta erabilerari buruzko datu soziolinguistikoak batetik, eta zentsuko datu ofizialak bestetik. Halaber, hizkuntza-politiken efikaziari buruzko pertzepzioak ere erabil daitezke hizkuntza biziberritzeko politikarik egoki eta eraginkorrenak sumatzeko tresnatzat, berez gogoeten ondorio eta zeharkako adierazle baino ez badira ere.

Hizkuntza-politiken efikaziari buruzko ebaluazioa egiteko eskatu zion Eusko Jaurlaritzak, 1996an, eraberritutako Euskararen Aholku Batzordeari. Gainera, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia proposatzeko ere eskatu zion.

1996an, Eusko Jaurlaritzak Euskararen Aholku Batzordea eraberritu zuen, eta euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko hizkuntza-politiken eraginkortasun-maila neurtzeko eta ebaluatzeko agindu zitzaion. Hain zuzen ere, azken hamarkadan euskararen alde egiteko hartutako neurriek izan duten eragina eta jardun-esparruz esparruko egungo indarguneak eta ahuleziak zehazteko eskatu zitzaion bertako kideei. Era berean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia proposatzeko ere eskatu zitzaion. Horretarako, urrats eta gogoeta ugari egin da: eztabaidarako oinarritzko txostenak, txostenei oharrak, egungo egitarau nagusien eta giza eta diru-baliabideen azterketa, euskararen atzerakadak eta aurrerakadak, indarguneak eta ahuleziak, susperraldirako proposamenak, proposamen horien eraginkortasuna, bideragarritasuna eta onargarritasuna, irizpideen finkapena, eginbeharrekoen lehentasuna eta presa eta abar. Euskararen Aholku Batzorde hau, jakina, ez da hutsetik abiatu.

III. EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia hizkuntzaren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko plan estrategikoa da, hizkuntza-politika egiten diharduten herri-aginteei euren jarduna bideratzen lagunduko dien oinarrizko tresna:

- alde batetik, arazo nagusiak aurreikusi ondoren, epe motzera eta luzeagora erdietsi behar diren helburuak adostu, egitarauak egokitu eta ebaluazio-irizpideak zehazteko.
- bestetik, euskara biziberritzeko aurrekontuen azterketa sakona egin eta egungo egitarauak etorkizunean izan dezaketen eragina aurreikusiz lehentasunak finkatzeko.
- azkenik, herri-erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko eta euskalgintzan diharduten bestelako enpresa eta herri-elkartekiko harremana bideratzeko.

Halaber, oinarrizko tresna da herri-aginteei zein gizarteko gune erabakigile desberdinek euren jarduna, auzolanean, uztartzeko.

Plan estrategiko hau dokumentu irekia eta eten gabe egokitzeko sortua da, herrigintzan eta gizartegintzan diharduten sektore eta taldeen ekarriek aberastuko duten neurrian eguneratzen joango baita.

Plan estrategiko hau ez da dokumentu itxi eta aldaezina, irekia eta etengabe egokitzeko sortua baizik, herrigintzan eta gizartegintzan diharduten sektore eta taldeen ekarriek aberastuko duten neurrian eguneratzen joango baita. Beraz, plan honek Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren ildo nagusiak erabakitzeko, foru-aldundiek eta udalek bideratu ohi duten euskararen aldeko sustapen-politika gidatzeko eta euskalgintzan diharduten elkarte, talde eta erakundeekiko elkarlana bideratzeko oinarrizko erreferentzia eta tresna izan nahi du.

JARDUN-ESPARRU ESTRATEGIKOAK

EABk hizkuntza-politiken hiru ardatz nagusi aztertu ditu: euskararen geroratzea, erabilera-eremuak, eta komunikabideak eta kulturgintza.

Batzorde honek hizkuntza-politiken hiru ardatz nagusi aztertu ditu: euskararen geroratzea, erabilera-eremuak, eta komunikabideak eta kulturgintza.

Euskararen geroratzeari dagokionez, honako jardun-esparru estrategikoetan gauzatutako ekimenak aztertu dira: euskararen eta euskarazko irakaskuntza Lehen eta Bigarren Hezkuntzan zein Unibertsitatean; helduen euskalduntze-alfabetatzea; euskararen familia bidezko jarraipena; euskararen corpusa eta kalitatea; eta euskararen egoera Nafarroan eta Iparraldean.

Bestalde, euskararen erabilera areagotzeko eremuotako hizkuntza-politikak ere neurtu dira: euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan, herri-administrazioetan, aisian, kirolean eta erlijioan, bai eta Euskal Herriko guneko soziolinguistikorik euskaldunenetan ere.

Azkenik, komunikabideetan eta kulturgintzan aurrera eramandako hizkuntza-politikak neurtu dira, zehazki eremu horietan: liburugintzan, irrati, telebista eta prentsa idatzian, publizitatean, kultur ekoizpenetan eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan.

Euskararen Aholku Batzordeaz gain, Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea ere eratu zen 1997an, bertako partaide izanik Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta EAeko hiru hiriburuetako udalak, euskalgintzarako egungo giza eta diru-baliabideen neurketa eta azterketa bideratzeko.

EABren iritziz, euskararen erabilera normalizatzeko neurriek ondorio onuragarriak izan dituzte euskararen erabileran eta zabalkundeetan. Hala ere, indarguneak indargune, hainbat ahulezia jaso ditu EABk bere txostenetan.

Inkestaren emaitzek erakutsitakoaren arabera, orokorrean, euskara biziberritzeko hizkuntza-politikek ondorio onuragarriak izan dituzte euskararen erabileran eta zabalkundeetan. Hala ere, eskatu bezala, euskararen aldeko politikek nahikoa eragin izan ez duten hainbat eremu adierazi ditu EABk. Indarguneak indargune, hainbat ahulezia jaso ditu EABk bere txostenetan. Kontuan izanda EAEn egin izan dela euskara biziberritzeko ahaleginik handiena, euskararen zabalkunderako eta erabilerarako perspektibarik onenak eta aurrerapenik handienak lurralde horretan daudela adierazi dute kideek. Bestalde, Nafarroan aurrerapen gutxiago sumatu dute, kontuan izanda komunitate horretan hizkuntza berreskuratzeko antolatu diren ekimenak EAEn baino gutxiago eta berantiaragoak izan direla. EAB ezkorrago agertu da Iparraldeko euskararen egoera dela eta. Esan bezala, 1991ko eta 1996ko inkestek argi eta garbi agertu dute euskararen erabileran eta geroratzean Iparraldean gertatzen ari diren galera handiak.

Euskararen Aholku Batzordeko kideek, bakoitza bere arloan aditu den neurrian, argi eta zuzen eman dute azken hamar urteotako hizkuntza-politikei buruzko beren iritzia.

Inkesten emaitzak interesgarriak dira, batez ere, Euskal Herrian gauzatutako hizkuntza-politiken eraginei eta erronkei buruzko aurreko azterketen balioespenak baieztatzen dituztelako. Euskararen Aholku Batzordeko kideek, bakoitza bere arloan aditu den neurrian, garbi eta zuzen eman dute azken hamar urteotan Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan erabakitako hizkuntza-politikei buruzko iritzia. 1991ko eta 1996ko soziolinguistikazko inkesten emaitzek, zentsukoek eta soziolinguistikazko mapakoek eta oraingo ebaluazio sakon honetakoek jarraibide oso baliozkoak ematen dituzte Euskal Herriko hizkuntza-politiken nondik norakoaz.

IV. EUSKARAREN INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK

IV.1 Sarrera

Euskararen historia luzea da, gure inguruan bizi direnen artean luzeena.

Euskararen historia luzea da, gure inguruan bizi direnen artean luzeena, bere aztarrenak Kristo aurreko bigarren milurtetik heldu baitzaizkigu. Izan zituen, jakina, gaur baino hedatuagoa zen garaiak. Era askotako arrazoi eta eraginez murriztu egin zaizkio, bistan denez, lurraldeak, erabilera-guneak eta arloak. Hala ere, bizi da, hil ziren beste askoren gainera. Beste askoren ama bilakatu zen latina bera ere bere umeen sustraian eta antzean bakarrik bizi baita.

Euskararen gainbehera.

Euskarak mendeetako ahultzea eta galtzea jasan izan ditu, bere bizitza luze horretan. Latinarekin eta erromantzeekin topo egin zuen eta bizilagun izan zen lekuetan abiatu zen atzeraka, lehenik, Araba eta Nafarroako lautadetan eta hiri handietan. Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, XIX. mendeko industrializazioak ekarri zituen etorkinen bidez hasi zen gaztelania nagusitzen. Handikiek, aberatsek eta eskoladunek ere erdararako joera hartu zuten, euskara gero eta gutxietsiagoa eta zokoratuagoa gertatu zen, eskolaren eta erakundeen laguntzarik ere ez zuenez.

Hogeigarren mendean, berriz, 50 urteko bi larderialdi zakar jasan behar izan ditu. Primo de Riveraren eta Francoren larderiak, alegia. Mende honen hasieran foru-aldundien laguntzaz eta 1930-36 bitarteko pizkundeaz landa, euskarak ez du erakundeen laguntzarik eta babesik izan azken urteok arte. 80.eko hamarkadaren hasieran barrena jo zuen euskaldun-taldeak. Hala jarraituz gero, doi-doi hel zitekeen euskara XXI. mendera, euskaldun bakar eta bakan batzuen ahoetan, Iparraldean gertatzen denaren antzera. Hirurogeiko hamarkadan sortu ziren ikastolak eta euskararen aldeko egitasmoak zorpean itoak gertatuko baitziren, administrazioaren laguntzarik ezean.

Euskararen gorakada.

Herri honek euskaraz bizitzeko izan duen eta duen nahiaren eta euskararen berreskurapenean herri-ekimenak izan duen garrantziaren lekuko dira, besteak beste, hirurogeiko hamarkadan, gertatzen hasi ziren ikastolen gorakada, argitalpenen ugaritzea, euskalduntze- eta alfabetatze-ekintzak, seminarioetan zein erlijiosoen zenbait ikastetxetan; Vatikanoko II. Kontzilioak (1962-65) euskarari Elizan emandako ofizialtasuna eta abar, guztiak, artean, frankismoaren pean gertatutakoak. Zorionez, ordea, bere akats, muga eta guzti, demokrazialdian bederen, galdutako autonomia lortu genuen Hego Euskal Herrian: Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan (1979) eta Foru

Erkidegoko Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzkoaren bidez Nafarroan (1982). Eta aginpide eta baliabide horien bidez geldiarazi da euskararen gainbehera, Iparraldean ez bezala. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, berriz, behetik gora ere abiatu da euskararen ibilia.

Lurralde desberdinetako legeria eta baliabideei lotua da, neurri handian, euskararen aurrerakada edo atzerakada. Euskal Autonomia Erkidego osoan da euskara ofiziala, gaztelaniarekin batera. Nafarroan, berriz, eremu euskaldunetan bakarrik da euskara ofiziala, Nafarroa guztiko hizkuntza ofiziala gaztelania baita. Iparraldean, halaber, ez du ezeren ofizialtasunik, frantsesa baita, legearen arabera, Frantziako hizkuntza ofizial bakarra. Legeria desberdin horren arabera garatu ditu arau, bitarteko eta baliabideak ere. Eta horien arabera dira emaitzak ere: hezkuntzan, komunikabideetan, administrazioan, liburugintzan, alfabetatze-euskalduntzean, euskararen beraren gizarteratzean eta abarretan.

Emaitzak aztertzeko garaia da, ordea. Euskarak non eta zertan egin duen aurrera edo atzera. Non dauden indarguneak eta non ahuleziak. Jarri diren giza eta diru-baliabideek zer-nolako etekina eman duten ere ikusteko garaia da, noski. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia itxurantzean burutu nahi bada, behintzat.

IV.2. Irizpideak

Lau irizpide edo zutabe nagusitan oinarriturik da Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-politika: demokrazian, ahulenaren aldeko jokabidean, hizkuntza propioari zor zaion aitortzan eta gizarte-ekimenen osagarritasunean.

Lau irizpide edo zutabe nagusitan oinarriturik da Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-politika: demokrazian, ahulenaren aldeko jokabidean, hizkuntza propioari zor zaion aitortzan eta gizarte-ekimenen osagarritasunean.

Herritar gehienek borondate eta gogora egokitu behar da hizkuntza-plangintza. Horretarako, berriz, herritarren jarrerak ezagutu behar dira, gehienek onartzen duten pausajearen eta abiadaren arabera hizkuntza-politika moldatzeko. Behar-beharrezkoa da, beraz, adostasuna aldika berritzea, gizartean nahiz politikarien artean. Gehienek muzin egiten badiote, hizkuntzarenak egin du.

Egoera desberdinetan dauden hizkuntzei ezin zaie hizkuntza-politika bera ezarri, aldera-karga hori areagotu nahi ez bada behintzat. Dagoen-dagoenean, bere gisa, uzteak, hizkuntzen alderoa handitzen du, ahulenaren eta txikienaren kaltetan. Hizkuntza-politikak, beraz, ahulenari eta txikienari lagundu behar dio, herritarren oinarritzko eskubideak zanpatu gabe.

Euskararen eta erdararen artean dagoen desberdintasun-egoera orekatzeko egin behar den hizkuntza-politikak ez ditu baztertu behar norbanakoek eginkizunak eta gizarte-ekimenak, herri-agintarien gehiegizko partehartzearekin. Aitzitik, herri-administrazioek jorratzen duten lan-esparruak xede eta muga garbiak ditu: oinarrizko arau demokratikoak gordetzea, euskara biziberritzen diharduten norbanakoek eta gizarte-ekinbideek egin dezaketena berorien kontura uztea, edota haiekin elkarlanean jardutea, eta ezin dezaketena osatzea. Horrela, ez bestela, susta daiteke gizarte indartsuagoa eta egituratuagoa.

IV.3. Indarguneak

Euskararen pizkunderako arlo eta neurri guztiek ez dute eragin berdina, jakina. Hala ere, bata besteari lotuak direnez, nahiz eta arloka sailkatu, orotara balioetsi behar dira askotan. Euskararen indarguneak nabarmentzen saiatuko gara, beraz, aurrena.

IV.3.1. Irakaskuntza

Irakaskuntzan D, B eta A ereduak ezarri zirenetik, nabarmena izan da gurasoek egin duten aukera, gero eta eredu “euskaldunagoak” edota “euskalduntzen trinkoagoak” eskatzen baitituzte.

Euskarak arrakasta handia izan du irakaskuntzan. Zenbaterainokoa izan den ohartzeko 1971 inguruko ikerketen ondorio batzuk izan beharko genituzke gogoan. Eskola publikoetako guraso eta irakasle gutxiri bururatzen zitzaion euskaraz eskola zitekeenik. Euskara irakats ote zitekeen bakarrik galdetu zitzaien, beraz. Eskola-orduetan eta beharturik irakatsi behar zitzaieela onartzen zutenak ez ziren %40ra iristen, herri euskaldun samarretan. Erljioa bezalaxe, nahi zuenari aukera ematearen alde agertzen ziren ia %30. Eta ia beste horrenbestek eskolorduetatik kanpo eta nahi zuenari bakarrik irakastea onartzen zuten.

Irakaskuntzan D, B eta A ereduak ezarri zirenetik, ordea, nabarmena izan da gurasoek egin duten aukera, gero eta eredu “euskaldunagoak” edota “euskalduntzen trinkoagoak” eskatzen baitituzte. Horren ondorioz, gero eta haur erdaldun gehiago ari da euskaraz eskolatzen. Gurasoen aldetik jarrera argia da, beraz: etxean beren seme-alabei ezin irakatsi dieten euskara eskolaren bidez irakatsi nahi diete. Hasieran, B eredua hazi zen gehien. 90. hamarkadan, ordea, D eredua nagusitu zaio. A eredua, berriz, urterik urte ari da ahultzen eta urritzen. Alde batetik, aukeran eskaini zaielako eta, bestetik, gaztelania-hutsunerik sumatzen ez dutelako hartu dute jokabide hori gurasoek, noski. Euskararen mailari dagokionez, berriz, B eta, batez ere, D erduetan euskara-maila egokia lortzen dute haur euskaldunek, irakurketa-idazketan eta hizketan. Are eta hobe, jakina, etxeko eta inguruko euskara zenbat

eta biziagoa den edota harreman-sarea trinkoagoa duen. Haur erdaldunek ere zenbat eta euskarazko eredia trinkoagoa duten, orduan eta maila hobea lortzen dute, eskolan erabiltzen den euskara horretan ikasle euskaldunen parekoa, gorabehera handirik gabe.

Horren ondorioz eta Irakaskuntza Ertainen emaitza gisa, ikasle gero eta elebidunagoak eta euskaraz ikasten ohituagoak ditugu. Orobat, euskararen indargune da gazteen eta langileen prestakuntzarako Lanbide Heziketak hartu behar duen garrantzia eta eskualde euskaldunetan duen indarra ere.

Ikasleetan ez ezik, irakasleetan ere hobekuntza nabarmena gertatu da hogeitau urteotan. 1976-77an %5era iristen ziren irakasle euskaldunak. Gaur, %65era iritsi dira.

Azkenik, seinalagarria da, indargarri suertatuko delako, oro har, euskalduntzearen aldeko jarrera ere.

Nafarroan ere gora egin dute elebidunek, eskolari esker gehienbat. 1996-97 ikasturteko A ereduaren kopurua %17,26 zen; D ereduarena, berriz, %26,27. D eta B eruedetan batez bestekoak gora egin du. Hemendik urte batzuetara nafarren ia erdiek jakingo dute gutxienez euskara zer den. Laurdena, gainera, euskalduna izango da. Euskaldunen batez bestekoa, beraz, bikoiztu egingo da. Nafarroa osoan ari da euskara barreiatzen: Iruñerrian, Lizarraldean eta Tafallan batez ere.

Iparraldean, haurren %12 eskolatzen da ikastoletan eta ikasgela elebidunetan. Garapen Kontseiluak neurri egokiak proposatu ditu, bestalde, irakaskuntza euskalduntzeko: euskarazko irakaskuntza lurralde osora zabaltzea, eta itsasaldean, bereziki, B eta D ereduak eskaintzea.

IV.3.2. Familia

Gurasoen bidez etorri zaigu euskara, guztiek ondorengoetaratatu ez badute ere. Familien bidez euskara hobeto eta ugariago ondorengoetaratuko da eta euskaraz mintzatzeko harreman-sareak ere ugaltu egingo dira,

Gurasoen bidez etorri zaigu euskara, guztiek ondorengoetaratatu ez badute ere. Horretan, ordea, asko hobetu da azken urteotan, gizarteko giroaren eraginez, baita baliabideak eta laguntzak eskaintzen zaizkiolako ere. Hegoaldeko familia euskaldunetan, behintzat, gaur ez da beren haurrei euskararik irakasten ez dieten gurasorik. Horretarako duten ardura ere gehitu egin baita urteotan.

Geroari begira, berriz, gero eta guraso euskaldun gehiago izango dira, eskola elebidunari esker. Familien bidez euskara geroratzeko aukera gero eta handiagoa da izan ere, gero eta aukera handiagoak

bestarik gabe.

aukera gero eta handiagoa da, izan ere, gero eta aukera handiagoak daude bikote eta familia euskaldunak osatzeko eta euskaraz mintzatzeko harreman-sareak ere ugaltu egingo dira, bestarik gabe.

Eskolak gero eta gazte euskaldun gehiago egiten dituzenez, gazte hauen jokabidea erabakiorra izango da, euskara edo erdara ondokoei eta ondorengoei emateko orduan.

IV.3.3. Aisia

Bizitza-antolaketan eta egituretan aisialdiak gero eta leku handiagoa du eta hizkuntzaren normalkuntza-bidean duen eragina areagotu egin da, beraz; azken urteotan, euskarazko eskaintza nabarmen hazi baita.

Bizitza-antolaketan eta egituretan aisialdiak gero eta leku handiagoa du. Ikasle eta gazteen hezkuntzari begira ere garrantzi handia du. Hizkuntzaren normalkuntza-bidean duen eragina areagotu egin da, beraz, azken urteotan. Ekintza ez arautu hauek, arrakastatsuak direnez, jende asko biltzen dute, bestalde.

Hori dela eta, udaletako kultur eskaintza gero eta zabalagoa da. Administrazioak antolatzen dituen ekitaldi-zirkuitoek ere gehitu egiten dute aukera. Horretaz gain, gizarte-ekimeneko taldeek ere eskaintzen dituzte, noizbehinka. Gazteentzat antolatzen diren ikuskizun gehienak euskaraz burutu ohi dira, gainera.

Ikastetxeetako aisialdiak, interbentzio-puntu jakinez osatzen denez, ikastetxe barruan eta kanpoan, lan osatua egiteko aukera eskaintzen du.

Aisialdiko guneak haurrentzat antolatu ohi direnez, gehienetan euskaldunak edo elebidunak izan ohi dira. Nahi den auzo edo tokitan kokatzen direnez, berriz, kaleko jendea erakartzeko ere egokiak dira.

Garrantzitsua da erdal jatorriko begirale euskaldunen ekarria: B eta A erduetako gazteak errazago hurbiltzen zaizkio euskaldun berri bati euskaldun zahar bati baino, euskara ikasi duenaren lana eta nekea miresgarri baitzaizkie. Begiraleak berak ere esker eta balio hobea ematen dio ikasten ari den haurrari.

Badira, jakina, gazte-talde eta eliz talde eratuak ere. Bakoitzaren partehartzea, murgiltzea eta aitzindaritza handiak dira. Gizartean txertatzeko bide jatorra eta eroso da, gainera, tokian tokiko bizitzan errotzen direnez. Bolondresen lanean oinarritzen dira, gehienbat, antolamendu arin eta merkeko jardura hauek.

IV.3.4. Kirola

Irakaskuntzaren

Kirolak, bistakoa denez, toki handia hartzen du gure gizartean.

ekarpenak profesional euskaldunak ziurtatu ditu SHEEren eskutik. Eskolak euskarazko adarra sendotu duen neurrian, euskaldun lizentziatu-andana osatu da. Horrek, besterik gabe, eragina izan du ikastetxeetan, administrazioan eta kirol-taldeetan.

Horregatik eraiki dira hainbeste kiroldegi. Kirola, bestalde, oso atsegina denez, hizkuntza erabiltzeko ere atsegina eta eroso da. Udal-kiroldegietako kirol-teknikari asko euskaldunak dira.

Eskola-kirolak ere, ikastetxeen eta administrazioaren kontrolari esker, hizkuntza-irizpideak zaintzen ditu, egoera soziolinguistikoak aukera ematen duenean. Udalen, foru-aldundien eta Jaurlearitzaren arteko koordinazioa bultzatzeko lehen urratsak egin dira, bestalde.

Irakaskuntzaren ekarpenak profesional euskaldunak ziurtatu ditu SHEEren (Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea) eskutik. Eskolak euskarazko adarra sendotu duen neurrian, euskaldun lizentziatu-andana osatu da. Horrek, besterik gabe, eragina izan du ikastetxeetan, administrazioan eta kirol-taldeetan. Horrekin batera, Irakasle Eskoletako soin-hezkuntzak ere irakasle euskaldunak ziurtatzen ditu.

Eusko Irrati Telebistaren bitartez, berriz, komunikabideetan euskarak inoiz izan ez duen tokia bereganatu du. EITBri zor zaio, noski, kirolean euskarak lortu duen normalkuntzaren alderik nagusiena. Kirolari eta zaletu euskaldunen kopurua ere hazi egin da, zorionez. Horrek berak ere eragin handia du gazteengan, komunikabideetako agerraldiengatik batez ere, eredu miresgarriak baitira haur eta gazteentzat.

IV.3.5. Kulturgintza

Gero eta jantziagoa den publiko berria irabazten ari gara euskararentzat: eskolak euskaldundutako haur eta gazteak irabazten, batez ere.

Euskaraz eskolatutako belaunaldi berriak euskaldungoaren zati garrantzitsua osatzen du. Euskara hautatzen duten taldeen jarrera ere gero eta irmoagoa da. Euskaldun izatearen alde egin du apustu. Euskal kulturaren giltza izango dira, beraz, gero eta euskaldunagoak diren belaunaldiok. Euskarazko kultur jardunen etorkizuna ziurtatuko duen publikoa euskalduna da, besteak beste. Izan ere, punta-puntako kulturak beti sortu behar izaten du bere publikoa; horrela eraberritzen eta aberasten du herri osoaren kultura. Gure ondasun kulturalik puntakoena euskara dela uste dugunez, gero eta jantziagoa den publiko berria irabazten ari gara euskararentzat: eskolak euskaldundutako haur eta gazteak irabazten, batez ere.

IV.3.6. Telebista

Belaunaldi berriak, baita urteotako eguneroko entzuleriak ere, saio asko zailtasunik gabe ulertzen ditu.

Belaunaldi berriak, baita urteotako eguneroko entzuleriak ere, saio asko zailtasunik gabe ulertzen ditu. Adibidez, kirolak, albistegia, lehiaketak, magazinak eta telesailak. Hizkuntzaren erabilera normaldu egin da, edozein gai erabil baitaiteke edozein testuingurutan, ulertzeko eragozpenik gabe. Batez ere, albistek,

**ulertzen ditu.
Hizkuntzaren**

kirolak eta marrazki biziak ikusteko ohitura handia da.

**erabilera normaldu
egin da, edozein gai
erabil baitaiteke
edozein
testuingurutan,
ulertzeko eragozpenik
gabe.**

Jakina, ikusle guztiak ez dira euskaldunak, batzuek zerbait ulertzen badute ere. Ikusle hauek telebistaren bidez gordetzen dute euskararekiko lotura, begi-belarrietan sumatzen baitute, egunero, euskara. Euskara hedatzeko eta ezagutzeko oso garrantzitsua da, beraz, telebistaren zeregina. ETB1 ezinbesteko tresna bihurtuko da gure hizkuntzarentzat. Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetatik %98an dago ezarrita ETB1; horietatik %70ek, berriz, egunero pizten du. Ez da, beraz, gaztetxo, zahar eta herri txiki euskaldunetako telebista bakarrik.

Euskal Telebistaren ekarria ezinbestekoa da euskararen etorkizunerako, gero eta jende gehiagok erabiltzen baitu informatzeko eta entretenitzeko, baita Nafarroan eta Iparraldean ere. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren erdaldun askok, eta euskara ikasten diharduten beste askok telebistan bakarrik ikusten dute euskarak gizartean duen lekua.

Baina telebistak ikus-entzunezko baliabideei ere asko eragin die. Hain teknologia aurreratua duenez, sare berrietan sartzeko aukera ematen du. Telebistarako egiten diren saioek bideo eta bestelako formatuetan zabaltzeko balio dute, bai etxean bai eskolan erabil ditzagun. Gainera, beste bitarteko batzuekin bat egiteko modua du, Internet eta multimedia sareen bitartez, besteak beste. Teletestua bera ere hasita dago Euskal Telebistan gaur egun. Horrek guztiak euskara lantzeko eta bultzatzeko aukera zabala eskaintzen du. Orain hamabost urte ez zegoen ekoizle-etxerik eta bestelako azpiegiturarik. Erabat aldatu da egoera. Gaur ezer gutxi bikoizten eta itzultzen da. Euskal Herrian bertan sortutako era guztietako saioak dira nagusi gaur. Antzezleak, aurkezleak eta partehartzaileak euskaldunak izateak naturaltasun handia ematen dio saioari berari.

Tokian tokiko informazioaren premiak, bestalde, tokian tokiko telebistak ekarriko ditu, seguruenik. Hori ere aparteko aukera izango da euskararentzat. Normalkuntzarako tresna baliotsua suertatuko da. Izan ere, herriko telebistak herritarren harremanak eta loturak sendotuko ditu, bertako jendearen, gertaeren eta albisteen berri ematen duelako. Tokian tokiko euskara erabiltzeko aukera eskainiko du, bertako jendearen ahozko jardunari esker.

IV.3.7. Irratia

**Gaurko irrati eta
telebistari esker, ahoz
ahoko euskarak inoiz
izan dituen tresnarik**

Gaurko irrati eta telebistari esker, ahoz ahoko euskarak inoiz izan dituen tresnarik edo baliabiderik indartsuenak ditu. Oro har, kalitate handiko saioak eskaintzen ditu, zorionez, Euskadi Irratiak. Telebista

izan dituen tresnarik edo baliabiderik indartsuenak ditu.

alde batera utzirik, Euskadi Irratia da euskararen plazarik jendetsuena. Euskarak ez du irratiz horrelako zabalkunderik inoiz izan.

Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea dira euskarazko irratigintzaren zutaberik nagusienak, ia Euskal Herri osora zabaltzen baitira. Baina lekuan lekukoek ere lan handia egiten dute: Iparraldeko hiru euskal irratiek eta Hegoaldeko Arrate Irratiak, Bizkaia Irratiak, Iruñeko Euskalerrria Irratiak eta Elizondoko Xorroxin Irratiak.

CIES etxeak 1996an egin zuen entzuleria azterketako emaitzen arabera; 14 urtez gorako 1.046.000k entzuten dute irratia Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban astean zehar. Milioia pasatxo horretatik milioi erdia dira euskaldunak, irratenti-entzuleen ia %50 alegia. Horietatik, 313.000 entzule euskaldun dira, astean behin bederen, irratiren bat entzuten dutenak. Ohiko irratenti-entzule euskaldunen %36k entzuten du, beraz, astean behin bederen, irratiti euskaldunen bat.

IV.3.8. Prentsa idatzia

Asko hazi zaio euskarazko prentsari merkatua. Inoiz izan duen indarririk eta hedapenirik handiena du, gainera. Herri-aldizkariak, bestalde, arrakasta handia lortu dute.

Asko hazi zaio euskarazko prentsari merkatua. Inoiz izan duen indarririk eta hedapenirik handiena du, gainera: argitalpen, kazetari, irakurle eta baliabideak. Herri-aldizkariak, bestalde, arrakasta handia lortu dute, herriko albisteak ematen dituztelako euskara errazean eta doan, eta ez dutelako erdarazkoen konpetentziarik. Euskaldunon Egunkariak eta Argia astekariak lortu dute autofinantzazio-mailarik handiena. Euskarari eta euskal kulturari ematen dieten lekua eta tratamendua dira, beharbada, berorien indargune nagusiak, erdarazkoetan horretan parekorik ez dutenez. Iparraldean Herria astekariak eutsi dio euskal irakurleriari, gehienbat. Azken urteotan, bestalde, hasiak dira zenbait truke-lerro euskal medioen artean.

IV.3.9. Liburugintza

Liburugintzak, bistakoa denez, gora egin du.

Liburugintzak, bistakoa denez, gora egin du. Batetik, irakaskuntzari esker, asko ugaltu dira euskaraz irakurtzen dakitenak; bestetik, liburutegi-, denda- eta banaketa-sarea ere osatu egin dira. Horretaz gainera, idazle eta argitaldarien lana ere bideratu egin da. Azkenik, lagungarri suertatu da erakunde autonomikoen hizkuntza- eta kultur politika, Eusko Jaurlaritzarena bereziki. Euskal liburuaren historia osoan lautik hiru baino gehiago azken hogeitau urteotan argitaratu da.

Kopuruan bakarrik ez du gora egin liburugintzak, bestalde, baita nolakotasunean ere. Sortzen dena ez ezik, itzultzen dena ere gero eta hobe eta baita.

Euskal idazlegoa normal samarra da, kopuru, antolamendu eta lanbide aldetik.

Hala ere, ikuskizun da merkatu zabalagoak tituluen gehitzea ekarriko duen. Gutxienez, tiradak handitzea, ekoizpena desberdintzea eta liburuaren beraren betekizunak aberastea ekarriko ditu.

IV.3.10. Publizitatea

Zorionez, euskaldunen merkatua hazten ari da, gazteriarena batez ere. Euskaldun gazteek kontsumitzen duten guztia, beraz, euskaraz iragar daiteke.

Publizitateak, berez, hedabide zabalak eskatzen ditu. Alde horretatik, kontra dute behar hori euskarak eta euskarazko komunikabideek. Baina, zorionez, euskaldunen merkatua hazten ari da, gazteriarena batez ere. Euskaldun gazteek kontsumitzen duten guztia, beraz, euskaraz iragar daiteke.

Bestalde, enpresa asko, handiak batez ere, euskaltasunaren edo bertakoak izatearen ohorea eta jatortasuna lortzeko ere baliatzen dira publizitateaz. Izan ere, bi etekin atera nahi izaten zaizkio publizitateari: bata saltzea; bestea, markaren beraren izen ona zabaltzea.

Publizitate bila dabilzanek eta agentzietako erabakigile euskaltzaleek bigarren etekin honen balioaz ohartarazi beharko lukete iragarki-jartzailea, nahiz eta Euskal Irrati Telebistako eta herri-aldizkarietako publizitateak irabazien etekina ere ongi ziurtatu.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako Kultura eta Hezkuntza sailak, batez ere sailtako erabakigileak, indargune garrantzitsua dira publizitatea gehitzeko ahaleginean.

IV.3.11. Euskalduntze-alfabetatzea

Euskararen berreskurapenean, ikastolekin batera, helduen euskalduntze-alfabetatzea izan da ekinbiderik eta mugimendurik garrantzitsuena.

Euskaldunak alfabetatzeko gau-eskola haiek erdaldunei euskara irakasteko euskaltegi bilakatu ziren. Orain, berriz, euskara hobetzeko eta ikas-prozesua burutzeko bide dira: Hegoaldeko gazteetan gero eta gutxiago baitira euskaraz irakurtzeko edo idazteko zailtasuna duten euskaldunak.

Euskararen berreskurapenean, euskal irakaskuntzarekin batera, helduen euskalduntze-alfabetatzea izan da ekinbiderik eta mugimendurik garrantzitsuena.

Gizon-emakume nagusiengan du alfabetatzeak eraginik makalena. Alfabetatzea, irakaskuntza zein komunikabideen eraginez indarra galduz joan da, alfabetatu beharrekoak adin multzorik helduenetan

baitaude batez ere.

Dena den, eskaera handia da gizartean. Baita euskaltegiekiko oniritzia ere. Hala ere, etengabeko berrikuntzan eta hobekuntzan dihardu arlo honek. Alde horretatik, ezinbestekoa izan da homologazioa burutzea, gaitasun-agiriak eskuratzea eta lan-baldintzak arautzea. HABEk sektorearekin izenpetutako hitzarmena astingarria izan da horretarako.

Nafarroan zein Iparraldean ere, eskaria zabala da eta baliabide urriak izanik ere, helduak alfabetatzeko nahiz euskalduntzeko euskaltegi eta gau-eskola ugari dago. Iparraldean, berriz, "jende helduari euskara ikasteko eskaintza indartzea" proposatu du Garapen Kontseiluak.

IV.3.12. Enpresa-mundua

Beharrezkoa bezain zaila da enpresa-mundua euskalduntzea. Baina egin diren esperientziak eta irizpideak baliozkoak dira. Metodologia egokia asmatu da eta, halaber, eredugarria.

Beharrezkoa bezain zaila da enpresa-mundua euskalduntzea. Baina egin diren esperientzia pilotuak eta irizpideak baliozkoak dira. Metodologia egokia asmatu da eta, halaber, eredugarria, besteak beste, herri-administrazioetan erabiltzeko. Hona esperientzia horien ondorio nagusienak: a) ezinbestekoa da euskara enpresako beste edozein gai bezala planteatzea. Hau da, enpresaren funtzio bakoitza planifikatzen, burutzen eta kontrolatzen denean hizkuntzaren alderdia kontuan izan behar da; b) ezinbestekoa da guztiek parte hartzea, bakoitzak bere erantzukizunaren arabera. Horretarako, berriz, informazioa eta sentiberatze-lana dira giltzarri, parte hartuko dutenen borondatezko atxikimendua lortu behar baita; c) egitasmo bakoitzak bere ezaugarri propioak izango ditu: enpresaren tamaina, euskaldunen portzentajea, bezero-mota, jatorria eta abar.

Hizkuntz egitasmoari heltzeko gai diren enpresek egitasmo berritzaileei ekiteko gai diren enpresa biziaren eta eraginkorraren irudia islatzen dute euren bezero, hornitzaile eta inguruko gizartean.

Gizabanakoen kezka eta gogoak kontuan dituen enpresarekin errazago egiten dute bat langileek. Hizkuntz egitasmoari ekiten dioten langileek enpresaren egitasmo batekin egiten dute bat, hain zuzen. Horretan, enpresa-arduradunek bertako langileen jatorriari eta hizkuntzari buruz jarrera positiboa izan dezaten.

Azkenik, kalitate hobea eskaintzen ari dira hizkuntza-egitasmoa burutzen ari diren enpresak. Bere zerbitzu eta generoak balio erantsia dute, beraz.

IV.3.13. Erlijioa

Zutabe sendoa izan da eliza euskararentzat.

Zutabe sendoa izan da eliza euskararentzat. Gaur egun ere, ebanjelioa aldarrikatzeko eta katekesia emateko beharrezkoa da eta, gainera, gero eta argiago ikusten da elebidun izan beharra. Gazteen pastoraltzan ere euskaldunen kopurua gehitzen joango dela espero da. Haurren katekesian zabaltzen zaio aukera garrantzitsua euskararen erabilerari.

Euskal Herriko bost elizbarrutietako kidez osatutako itzultzaile-batzordeak mesede handia egin dio euskararen normalkuntzari. Elizak baditu, dagoeneko, euskaraz jarduteko lanabesik beharrezkoenak.

Elizkizunak euskaraz edo erdaraz izatearen inguruan lehendik hartutako erabaki batzuk aztertzeko eta aldatzeko ordua iritsi dela ikusten da. Izan ere, gero eta argiago ikusten baita eliztarren egoera linguistikoaren arabera eratu behar direla elizkizunak. Horrek, gutxi edo asko, euskara elizkizun guztietan erabiltzea bultzatzen dezake.

Behartsuenekin eta ahulenekin bat egiteko agintzen dion Ebanjelioa bete nahi duenak ere hizkuntza ahul eta gutxituen aldeko jokabidea erraz har dezake. Tokian tokikoa izan beharrak ere bertako hizkuntzaren eta kulturaren alde egitera bultzatzen du eta fedea bera ere bertako hizkuntzaz eta kulturaz janztera. Eliz inguruetan euskararen eta elebitasunaren arazoa planteatzeak beste arrazoi bat ere badu: herri honen baketze eta adiskidetzarako prozesuan seinale eta bultzagile izatea.

IV.3.14. Administrazioa

Euskarari erabilera-eremu berria zabaltzen ari zaio; orain arte, salbuespenak salbuespen, euskarak ez baitu tokirik izan Administrazioan.

Euskarari erabilera-eremu berria zabaltzen ari zaio; orain arte, salbuespenak salbuespen, euskarak ez baitu tokirik izan Administrazioan. Horretarako erabilera areagotzeko saioak egin dira eta erabilera sustatzeko baliabideak egokitu dira lehen plangintzaldian. Bertan erabilitako metodologiaren eraginkortasuna ere agerian geratu da. Batetik, hizkuntzaren aldeko prestakuntza eskaini zaie funtzionarioei. Bestetik, lanean euskara erabiltzeko baliabideak jarri zaizkie eskueran.

Gehienetan lege-babesa errealitatearen gainera bada ere Euskal Autonomia Erkidegoan, badira erabat euskaraz bizi diren udalerrak ere, hizkuntza-plan aurrerakoiagoa egin daitekeela horrelakoetan. Izan ere, euskararen erabilera nonbait baldin badago sustraituta, hori, udalerrri euskaldunenetan da, herri hauetan ematen baitira

euskara gizarte-bizitzaren alor guztietara hedatzeko baldintzarik egokienak. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) osatzen duten udalerriez gain, badira beste udalerrri euskaldun ugari, euskaldun-kopurua %75etik gora dutenak alegia. Hau dela eta, UEMA edo haren antzeko proiektuak beste udalerrri euskaldunetara zabaldu beharra dago, izan ere, udalerrri euskaldunetan bizi diren euskaldunentzat ez ezik, Euskal Herri osoko herritarrentzat ere, garrantzitsua da euskal guneetan garatutako hizkuntz plangintza. Arrazoen artean hauek aipa daitezke:

- a) Euskararen mundu sinbolikoa, jatortasuna eta zuzentasuna hobeto gordetzen da udalerrri euskaldunenetan.
- b) Gune aitzindariak izan daitezke euskararen corpus eta statusaren normalkuntzan.

Bestetik, udalerrri euskaldun ugari dira Iparraldean euskara normalizatzeko plangintzarik gabe eta UEMAren ekarpena interesgarria izan daiteke.

IV.3.15. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea

Euskararen corpusa bateratzeko eta finkatzeko lan handia egin da Euskaltzaindiaren gidaritzapean.

Euskarak berak ere eguneratu eta egokitu beharra du, jakina, gaurko premietara eta arlo nahiz eremu berrietara. Izan ere, eguneroko jardunean euskara lan-tresna eta komunikazio-hizkuntza dutenen beharra handia da. Hori dela eta, euskal lexikoa bateratzeko eta finkatzeko lan handia egin da Euskaltzaindiaren gidaritzapean, eta egiteke dagoena burutzeko, berriz, baliabideak jarri dira. Orain arte burutu den guztia informatizaturik da, bestalde. Euskararen corpusaz arduratzen diren erakundeek eta elkarteek duela urte gutxi arte ez zuten gaitasun-maila erdietsi dute, beraz.

Hala ere, norberaren hizkera ez da baztertu behar eguneroko bizitzatik, hizkuntza zuzenagoa eta egokiagoa erabiltzen baitu nork bere euskalkian. Besteak beste, ez dezagun ahantz, euskararen eta euskarazko baliabideen kalitatea hobetzeko apustua irabazi behar da urteotan.

IV.4. Ahuleziak

Aurrea eta atzea izan ohi ditu txanponak. Euskarak ere halaxe ditu: indarguneak eta ahuleziak. Orain arte alde bat ikusi dugu: baikorra. Hemendik aurrera besteari begiratu beharko diogu: alde ilunari.

IV.4.1. Irakaskuntza

Eskolak urte luzeetan egindako

Eskolak urte luzeetan egindako euskalduntze-ahaleginak ez du behar bezalako jarraipenik gizaratean: ez enpresa-munduan, ez

euskalduntze-ahaleginak ez du behar bezalako jarraipenik gizartean: ez enpresa-munduan, ez kulturan, ez kalean.

kulturari, ez kalean. Eskolan bertan ere, ikasleen arteko harremanetan bereziki, erdarak menderatzen du euskara, baita teoriak onak diren eskola-baldintzetan ere. Belaunaldi berrion bihurtziko hizkuntza-portaeraren seinale izan daiteke jokabide hau, geroko gizon-emakume euskaldunen arteko harremanak erdaraz eraikitzen ari baitira maiz. Euskara bigarren hizkuntza dutenen artean nabarmenagoa da, jakina, hau guztia. Belaunaldi gazteek, euskaraz ikasi eta eskolatuak izan arren, ez dute, zoritxarrez, zenbait eskualdetan behinik behin, euskal gizarterik osatuko.

A eremuan ikasten duten haur erdaldunek, bestalde, oso maila apala dute ulermen-mailan, apalagoa idazteko eta hitz egiteko. Ez dute legeak finkatzen duen “nahikotasun”-mailarik lortzen. B eredu “bigunean” ere hutsune nabarmenak agertzen dira: nahasketak fonologian, lexikoan eta joskeran, hiztegi mugatua. Esaldiak osatzeko zailtasuna eta abar.

Irakasle euskaldunen eskasiak ere asko mugatzen du irakaskuntzaren euskalduntzea.

Euskal Herriko Unibertsitateak, bestalde, oraindik erabakitzeke du zein unibertsitate-eredu nahi edo behar duen, elebakarra ala eleanitza. Era berean, finkatzeke du zein ikasketari eman behar zaion lehentasuna euskaldungoaren ikuspegitik².

IV.4.2. Familia

Indar handia du zerbitzuen eskaintzan ageri den erdararen aldeko joerak gazteen hizkuntz ohiturak finkatzen hasten direnean. Familia bidezko jarraipenaren hutsegitea nabarmenagoa da, gune erdaldunetan eta aita edo ama, erdalduna denean.

Indar handia du produktuen eta zerbitzuen eskaintzan ageri den erdararen aldeko joerak gazteen hizkuntz ohiturak finkatzen hasten direnean.

Familia bidezko jarraipenaren hutsegitea nabarmenagoa da, dena den, gune erdaldunetan. Joera hau areagotu egiten da aita edo ama, bietakoren bat, erdalduna denean. Horrelako bikoteen joera erdararen aldekoa baita, oro har.

Gazteek sortuko dituzten familia berrietan zailtasunak izango dituzte euskara ondorengoetarako, erdal elebidunak baitira gehienak.

Familia bidezko jarraipenak, berriz, azken urteotan, txarrera egin du Iparraldean. Eta familiei begira egin ziren kanpainak ere ez dute uste adinako emaitzarik eman: ez ziren helburuak behar bezala zehaztu

² 1999ko martxoaren 3an Euskal Herriko Unibertsitateak “UPV/EHUko Euskararen Erabileraren Normalizaziorako II. Plangintza” onartu zuen. Plangintza horretan, unibertsitate-eredua (elebiduna), ikasketak euskaraz eskaintzeko lehentasunak eta beste zenbait garrantzizko kontu ere geratu dira finkaturik.

eta koordinazioan ere hutsegite nabarmenak gertatu ziren.

IV.4.3. Aisia

Lagunarteko aisian erdara gailentzen da askotan. Eta oso zail da hor kanpotik eragitea. Erakunde publikoek antolatzen dituzten aisialdiatarako ekintzetan, berriz, ez da hizkuntza-irizpiderik.

Lagunarteko aisian erdara gailentzen da askotan. Eta oso zail da hor kanpotik eragitea. Erakunde publikoek antolatzen dituzten aisialdirako ekintzetan, berriz, ez da hizkuntza-irizpiderik.

Bestalde, komunikabideek, telebistek bereziki, betetzen dute haur eta gazteen aisialdia, gehienbat. Hor, noski, erdarazko aukera ugariagoa da, euskararen kalterako. Baita zine, bideo eta abarretan ere.

Aisialdi antolatua bitartekoak jartzen saiatzen da, baina haur eta gaztetxoekin lanean aritzeko unean, baliabide ugari behar dira: begirale euskaldunak, bolondresak, ordenadoreak, jolasak, tailerrak, abestiak, ipuinak eta abar. Hor ere erdarazkoak ugariago dira euskarazkoak baino. Aisialdia euskararen normalizaziorako tresna egokia eta azkarra izatea nahi badugu, ezinbestekoa da horretarako behar diren euskarazko baliabideak merkaturatzea.

IV.4.4. Kirola

Profesionalen prestakuntzan urri eta urrun da euskara: kirol askotako entrenatzaile-ikastaroetan, esaterako. Entrenatzaile eta monitore euskaldunik gabe zaila da kirola euskalduntzea.

Profesionalen prestakuntzan urri eta urrun da euskara: kirol askotako entrenatzaile-ikastaroetan, esaterako, euskarak ez du sarbiderik. Entrenatzaile eta monitore euskaldunik gabe zaila da kirola euskalduntzea.

Kirol-federakuntzaren egiturak ez du neurri batean administrazioak ezar ditzakeen hizkuntza-irizpideak edo baldintzak jartzeko aukerarik eskaintzen.

Euskal Telebistaz landa, eta bera ere itorik gera daiteke kable bidezko uholdean, oso leku gutxi du kirolak beste hedabideetan. Euskaldunon Egunkariak ere kale egiten du astelehenetan, kirola albiste den egunean. Kirolari bakarrik eskainitako egunkaririk ez da euskaraz, bestalde.

Kirolak, gainera, bere dinamika du, eta alferrik da euskararena ezarri nahi izatea. Orain artekoek, behintzat, ez dute emaitza onik eman. Izan ere, euskara-irizpidea egokitu behar zaio kirolak duen dinamikari.

IV.4.5. Kulturgintza

Euskal Herrian gaur

Euskal Herrian gaur egun dauden bitartekari gehienak erdaldunak

egun dauden kultura-bitartekari gehienak erdaldunak dira: ez dira euskaraz sortzen den kultura bere osotasunean ulertzeko eta ezagutzeko gai.

dira: ez dira euskaraz sortzen den kultura bere osotasunean ulertzeko eta ezagutzeko gai.

Profesionalizaziorako bideak gaztelaniak bakarrik zabaltzen baditu, morroi izatera beharturik gara. Elebitasun erabatekoa, berriz, alferrikakoa gertatu da askotan, euskaldunen aspergurarako gainera, mezua errepikaturik ematen zaionez. Euskaldungoari gustukoa zaion eskaintzarik erakargarriena egin behar zaio. Hor dago publikoa gehitzeko giltza. Kultura Sailak ere, bestalde, ezarri beharko lituzke hizkuntza-irizpideak dirulaguntzak banatzerakoan.

IV.4.6. Telebista

Mundu honek berebiziko aldaketa jasango du, digitalak, kable bidezkoak eta abar direla. Orain EAEko bost kateetatik bat euskaraz dugu. Laster 50etik edo 100etik ere bakarra izango dugu euskaraz.

Mundu honek berebiziko aldaketa jasango du, digitalak, kable bidezkoak eta abar direla. Orain EAEko bost kateetatik bat euskaraz dugu. Laster 50etik edo 100etik ere bakarra izango dugu euskaraz.

Dugun bakarrak, berriz, ez du behar besteko harremanik euskararen mundu sortzailearekin: zegoen kultur emanaldi bakarra bertan behera galdu zen; musika gazteak ez du lekurik; literaturari buruzko solasaldirik ez da, euskal musika, kantua edo antzerkia eskaintzeko politika finkorik ere ez; hemengo ipuin, istorio eta mitoek ez dute lekurik. Kirolzale eta umeentzat egiten da, batez ere. Gu bereizten gaituzten ezaugarriak jasotzera eta txertatzera baino gehiago medioaren beharretara makurtu gara.

Euskal Herri osoko esatariak falta dira. Gipuzkera da nagusi. Gainera, gero eta sarriago entzuten dira erdal ahoskera eta doinua. Ahozko euskara alde batera utzi eta irakaskuntza eta mundu moderno gehiegi oinarritzen dira testu idatzian.

IV.4.7. Irratia

EITB, euskal irrati guztiak eta euskarazko prentsa koordinatuko lituzkeen sistema falta da.

EITB, euskal irrati guztiak eta euskarazko prentsa koordinatuko lituzkeen sistema falta da. Irrati publikoen eta pribatuen arteko aldea handia da. Euskarazko beste irrati guztien urtebeteko aurrekontuak batuta, ez dute Euskadi Irratiaren eta Euskadi Gaztearen urteko aurrekontuaren laurdenik.

Beste nazioetako irrati publikoek 4-5 emisoratako katean barreiatzen dituzten eskaintza desberdinak (informaziokoa, musika klasikokoa, gazteentzako, lekuan lekukoa eta abar) emisora bakar batek egin behar izaten du hemen, bestalde.

Zoritxarrez, gainera, Euskadi Irratiak ez ditu oraindik Gipuzkoako mugak garbi gainditu, ez ikuspegiz eta ez hizkuntzaz, han kokatuta

dagoenez eta langile ia gehienak giputzak dituen. Beste irratiek, berriz, Nafarroakoek, bizkaierazkoek eta Iparraldekoek, badute bizitzen bakarrik esku bete lan.

Gainontzeko irratietako euskara urria eta modu askotakoa da, noski. Hizkuntzaren kalitatea, oro har, kezagarria da, ez bairik gabe.

Euskarazko irratigintzak lehia-eremu bortitz eta bihurrian mugitu beste irtenbiderik ez du, beraz. Lorpenak lorpen, irratia pizterakoan, euskarazkoa hautatzen ez duen haur, gazte, heldu eta zahar euskaldun asko da oraindik ere. Bestalde, ez dago garbi bakoitzak zein euskaldun-mota bereganatu nahi duen.

IV.4.8. Prentsa idatzia

Urria eta baliabide urrikoa, irabazirik eta elkarren lehiarik gabea da euskarazko prentsa; hizkuntza horretan, lehiakiderik ez izateak erdipurdikierarako duen arrisku nabarmenarekin. Oso zaila zaio publizitatea eskuratzea. Bestalde, alderdi politikoek eta Administrazioak berak ez diote garrantzi handirik ematen.

Urria eta baliabide urrikoa, irabazirik eta elkarren lehiarik gabea da euskarazko prentsa, hizkuntza horretan, lehiakiderik ez izateak erdipurdikierarako duen arrisku nabarmenarekin. Oso zaila zaio publizitatea eskuratzea. Bestalde, alderdi politikoek eta Administrazioak berak ez diote garrantzi handirik ematen. Euskarazko prentsak ez du irati-euskaldungoa irabazi eta erakarri. Herri-aldizkariak bakarrik iritsi dira irakurleria zabal batengana.

Doi-doi bizi den euskarazko prentsak erdarazko ugariagoak, hobeak eta indartsuagoak ditu lehiakide. Gazteen merkatua ari da galtzen horrela, eskolak euskalduntzen duen gaztea prentsak erdalduntzen duelarik. Izan ere, hutsaren hurrengoa da erdal prentsak euskarari ematen dion lekua. Euskarazko prentsa hori erdarazkoaren mendekoa da, gainera. Iturriak erdaldunak direlako, albisteak erdaraz sortzen direlako eta euskarazko agentziarik ez dagoelako.

Era guztietako prentsa-moldeak kontuan hartuko lituzkeen sistema falta da, baliabideak erabiltzeko eta helburuak lortzeko orduan. Izan ere, begi-bistakoak dira Euskaldunon Egunkariaren eta Argiaren gabeziak erdarazko argitalpenen ondoan: orrialde-kopurua, kolorearen erabilera, grafismoak eta infografismoak duten lekua, albiste lokalen tratamendua eta tokian tokiko edizioak.

Lan egiteko baldintzak hobetzen ez badira, bestalde, orain bere burua trebatzen ari den belaunaldi honi ez zaio bizimodua kazetaritzatik ateratzea erraza izango, batez ere bizitzako beste zenbait eginkizuni erantzun behar badio.

IV.4.9. Liburugintza

Irakurleak baino

Irakurleak baino gehiago ugaltzen dira liburuak. Liburu gehiegi ala

gehiago ugalduta dira liburuak. Izan ere, euskarazko liburuak ez du oihartzunik: batetik, euskarazko liburuak, ia galdurik edo ezkutaturik egoten dira liburudendetan, hainbeste erdarazkoren artean; bestetik, hutsaren hurrengo dira promozio-ekitaldiak.

irakurle gutxiegi? Izan ere, euskarazko liburuak ez du oihartzunik bere lehen merkatu naturaletik aparte. Batetik, euskarazko liburuak, euskarazko prentsa bezalaxe, ia galdurik edo ezkutaturik egoten dira liburudendetan, hainbeste erdarazkoren artean; bestetik, hutsaren hurrengo dira promozio-ekitaldiak. Itzulketen arazoa ere hor dago: banaketariarentzat liburuaren itzulketa bidalketa bera baino askoz ere garestiagoa denez, ondorio komertzialak, ekonomikoak eta kulturalak ditu; liburuak ez dute aski presentziarik liburudendetan eta liburuaren salmenta-aukerak galdu egiten dira horrela. Bestalde, liburuaren esportaziorako itzulpena ezinbestekoa da.

Merkatuaren mugak direla eta, argitaraldi murrizak egiten direnez, irabazia ere murriztagoa dute euskarazkoek. Berrargitalpena da liburuaren bizialdia luzatzeko bide bakarra.

IV.4.10. Publizitatea

Euskarazko prentsaren ahuleziak ondorio zuzena du publizitatean. Orobat, euskarazko irakurleria murrizak ere.

Euskarazko prentsaren ahuleziak ondorio zuzena du publizitatean. Orobat, euskarazko irakurleria murrizak ere. Euskarazko publizitatearentzat eskaera txikia dago, beraz. Publizitate-etxeei euskaraz egin daitekeen ere ez zaie bururatzen. Euskarazko komunikabideek ez omen dute merkatu-kuota minimorik.

Bestalde, erakunde publikoetan (udal, foru-aldundi, Eusko Jaurlaritza eta abarretan) gutxitzen ari da euskarazko publizitatea. Gainera, egiten dutena %25 inguru da elebiduna; %75 gaztelania hutsean baita.

Euskarazko komunikabideek, berriz, ez dute iragarle garrantzitsuak eskuratzen jakin, enpresa-estrategia baikor, indartsu eta erakargarrien faltaz edo. Euskarazko komunikabideetan egindako iragarkiek ezer gutxitarako balio ote duten susmoa dute iragarle eta agentziek.

IV.4.11. Euskalduntze-alfabetatzea

Hizkuntza bat ikastea neketsua da eta euskalduntzearen eta alfabetatzearen emaitzak ez dira nahi bezain onak: hasten diren askok ez dute ikasturtea amaitzen; hurrengo urtean gutxiagok jarraitzen; oso gutxi erdiesten dute euskara-maila

Hizkuntza bat ikastea neketsua da. Bestalde, euskalduntzearen eta alfabetatzearen emaitzak ez dira onak: hasten diren askok ez dute ikasturtea amaitzen; hurrengo urtean gutxiagok jarraitzen; oso gutxi erdiesten dute euskara-maila egokia. Horietako askok, gainera, ikasteari utzitakoan, euskaraz bizitzeko dituzten aukeren urritasunagatik, galdu egiten dute ikasitakoa.

Ez da beste euskaltegiekin eta hizkuntzak irakasten dituzten akademiekin ez harremanik eta ez irakasbideen konparaketarik ere. Euskaltegien mapa bera ere egiteke da oraindik, bakoitzak bere

dute euskara-maila egokia.

hazkunderari bakarrik begiratzen baitio.

Dirulaguntzen banaketan ere, nahiz eta gero eta txikiagoak izan, badaude oraindik desorekak eta aldeak. Zenbait euskaltegitan ere bada oraindik euskararen kaltetarako den ideologizatorik.

Alfabetatzearen eskaintza osotua zehaztu beharra dago, bai eta irakasleen prestakuntza areagotzeko beharra ere.

IV.4.12. Enpresa-mundua

Euskal gizartea ez da enpresa-munduan euskara erabiltzeak duen garrantziaz jabetu.

Euskara irakaskuntzan erabiltzea normalizat hartzen da, baina enpresa-mundura iritsitakoan, gehienetan, erdarara jotzen. Euskal gizartea ez da enpresa-munduan euskara erabiltzeak duen garrantziaz jabetu. Arlo sozioekonomikoaz arduratzen diren Eusko Jaurlaritzako sailak ere ez zaizkio euskara biziberritzeko plangintzari behar bezala atxiki. Administrazioaren menpeko enpresetan ez da oraindik mikroplangintzarik egin. Lan-esparru desberdinetan handia da oraindik terminologi gabezia ere.

IV.4.13. Erljioa

Elizbarrutiek ez dute euskararen aldeko hizkuntza-politika bateraturik.

Elizbarrutiek ez dute euskararen aldeko hizkuntza-politika bateraturik. Gainera, eliztar askoren ustez, moteldu egin da Elizan euskararen normalkuntza.

Katekesi- eta pastoraltza-lanetan diharduten gehienak erdaldunak dira, nahiz eta eskolatik gero eta haur eta gazte euskaldunagoak etorri. Horretan dihardutenei, euskaldunak izan arren, nagusiki erdaraz ematen zaie prestaera. Bihar-etziko eliz arduradunek eta apaiz berriek ere erdara dute lehen hizkuntza, lehen ez bezala, giro erdaldunetik baitatuz seminarioetako gazterik gehienak. Apaizak edo eliztarrak gutxitu direla eta, ez da euskara hutsezko mezarik gehitu. Teologiazko gogoeta nagusiki erdaraz egiten da Euskal Herrian.

IV.4.14. Administrazioa

Administrazioak erdaldun jarraitzen du. Ohituragatik edo, euskararen ezagutzak ez du berezko erabilerarik ekartzen. Politikariak eta goikargudunak ere ez dira horretan ispilugarbiak.

Administrazioak erdaldun jarraitzen du. Ohituragatik edo, euskararen ezagutzak ez du berezko erabilerarik ekartzen. Politikariak eta goikargudunak ere ez dira horretan ispilugarbiak.

Euskaraz lan egin behar duten atalak izendatzeke daude oraindik. Lanerako tresneria, ia erabat, erdara hutsean dago: fotokopiagailuak, ordenadoreak, oinarritzko testuak, eskuliburuak eta abar. Oraindik badago lanik legetan jasota dagoena betetzeko. Gainera, Eusko Jaurlaritzan zein Autonomia Erkidegoko udal- nahiz

foru-administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko egin diren urrats ugarien aldean, Euskal Herrian kokaturik dauden Estatuko administrazioko erakundeetan, eta, bereziki, Justiziakoetan, ezer gutxi aurreratu da orain arte.

Bestalde, herritarren aldetik ere ez da administrazioa euskaraz egitera behartzeko joerarik, ezta udalerrri euskaldunetan ere, euskara norbere etxean edo lagunartean erabiltzeko hizkuntza dela uste baitute euskaldunik gehienek.

Euskal Herriko herri-erakundeen arteko koordinazioa areagotu behar da eta irizpideak bateratu. Horrekin batera, gune euskaldunenetako hainbat udalerriren jarrera baztertzailak gainditu beharra dago.

IV.4.15. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea

Euskaldunen kopurua gehitzeak badakar, neurri batean, kalitatearen galera, erdararen kutsaduragatik bereziki.

Euskaldunen kopurua gehitzeak badakar, neurri batean, kalitatearen galera, erdararen kutsaduragatik bereziki. Bakoitzaren hizkera edo euskalkia zaintzeko eta hobetzeko ezer gutxi egiten da, besteak beste, eskoletako irakasleek eta euskara-irakasleek ez baitiete tokian tokiko hizkuntz ereduei, euskalkiei eta ahozkoari dagokien garrantzirik eskaintzen. Zuzentasun-egokitasun-jatortasun auzia, dena den, normalkuntzaren menpe dago neurri handian.

Orobat, euskara ondorengoetartzeko gaurko haur eta gazteek izango duten garrantzia ikusita, ez zaio arreta handiegirik eskaintzen haur eta gazteentzat egiten diren liburu eta irakurgaietako euskarari. Kale-erdaran moda-modan jartzen diren hitz eta esaldiek ere ez dute euskarazko ordainik, eta barra-barra sartzen dituzte erdarazkoak euskaraz ari direnean ere. Beraz, plangintza behar da ahozko hizkeraren estandarizaziorako.

Hiztegiaren zenbait arazo konpontzeko, berriz, terminologi lana oso sakabanaturik dago: lehentasunak ere finkatzeke daude. Corpora osatzeko eta hobetzeko egin den lana bera ere ez dago ikertzaileen eskueran, nahiz eta dena dagoen euskarri elektronikoan. Ez dago 16 urte arteko hezkuntzan erabiltzeko hiztegi arau-emailerik ere.

Euskararen kalitatea hobetzeko ezinbestekoak dira baliabide hauek guztiak.

IV.5. Hizkuntza-politikarako egungo giza eta diru-baliabideak

Hasteko, argi eta garbi utzi behar da orain arte Euskal Herri osoaz aritu bagara ere, atal honetako gogoetan EAera bakarrik mugatu garela. Are gehiago, euskalgintzarako aurrekonturik handiena duten EAEko herri-administrazio jakinetara mugatu garela, hots, Eusko Jaurlaritzaren barnean, euskara sustatzeko aurrekonturik handiena duten sail edo ataletara, hiru foru-aldundietara eta hiru hiriburu-eta udaletara.

Ondoren datoz, horretarako sortua izan zen Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak euskara sustatzeko aurrekontuez eta giza baliabideez eginiko ebaluazioaren emaitza nagusiak. Euskara sustatzeko giza zein diru-baliabide gehigarriak dira lan honen aztergai. Hain zuzen ere, kanpo utzi dira, gastu gehigarri ez diren kontzeptuak nahiz eta, maiz askotan, oso zail gertatu den gehigarri izate hori zertan datzan argi eta garbi adieraztea. Esate baterako, hezkuntzako gastuen azterketa egiterakoan, kanpo geratu dira A, B eta D eredu-eta irakaskuntza-gastuak, gaztelania hutsezko ereduak izan balira ere kostu berdina izango baitzuketen. Aitzitik, kontuan hartu dira eredu horietan irakasteko behar diren irakasleen euskara-prestakuntzaren gastuak, ordezkapen-kostuak barne.

Ondoko laukian jaso da aztertutako erakunde bakoitzaren euskara-gastua. Hona ondorio nagusiak:

- 1997an herri-aginteek euskara sustatzeko erabili duten aurrekontua ia 15.500 milioi pezetakoa izan da, erakunde horien aurrekontu osoaren %1,53 (Eusko Jaurlaritzako aurrekontu osoaren %1,9; foru-aldundietakoaren %0,52 eta hiriburu-eta udaletakoaren %0,60).
- Aurrekontu osoaren ia %90 Eusko Jaurlaritzari dagokio. Dirutzarik handiena hezkuntza-sistema euskalduntzeko da; kopuruz, hurrenez hurren ageri dira Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren aurrekontua (HABE barne) eta EITBrena eta azken tokian dator, berriz, administrazio- funtzionarioak euskalduntzeko HAEEK duena.

Azterturiko erakunde bakoitzaren euskara-gastu gehigarria

ERAKUNDEAK	EUSKARA-GASTU GEHIGARRIA	ERAKUNDEAREN AURREKONTUA	ERAKUNDEAREKIKO GASTUA %
<i>Hezkuntza Saila</i>	5.732.080.000	709.878.300.000	0,81
<i>Kultura Saila (HPS/HABE)</i>	4.542.600.000	709.878.300.000	0,64
<i>Ogasun Saila/HAEE</i>	1.345.000.000	709.878.300.000	0,19
<i>EITB</i>	3.020.000.000	709.878.300.000	0,43
EUSKO JAURLARITZA	13.869.680.000	709.878.300.000	1,95
<i>Arabako Foru Aldundia</i>	148.735.710	31.811.000.000	0,47
<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	487.690.848	106.985.000.000	0,46
<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	440.824.000	67.409.000.000	0,65
FORU ALDUNDIAK	1.077.250.558	206.205.000.000	0,52
<i>Bilboko Udala</i>	172.021.096	45.001.000.000	0,38
<i>Donostiako Udala</i>	280.894.944	25.797.679.574	1,08
<i>Gasteizko Udala</i>	141.275.868	27.638.297.806	0,51
HIRIBURUAK	594.191.908	98.436.977.380	0,60
GUZTIRA	15.478.722.466	1.014.520.000.000	1,53

Iturria: erakunde bakoitzak bere datuak eskaini ditu.

Oharra: erakunde bakoitzaren alboan jaso da erakunde horrek egiten duen gastu osoa. Alabaina, batuketak egiterakoan kendu egin dira (hobeto esan, behin baino ez dira kontatu) erakunde batetik besterako transferentziak. Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren zein Guztiraren kasuan, batugaien batuketa ez dator bat batuketarekin.

- Bestalde, Euskaltzaindia, UZEI eta Eusko Ikaskuntza erakunde guztiek babesten dituzten euskalgintzan diharduten erakundeak.
- Era berean, funtzionarioak euskalduntzeko eta alfabetatzearen alde "belaunez belaun" euskararen jarraipenari buruzko kanpaina egitarauak dira erakundeen elkarlanaren ondorioz garatzen diren erakundeak.
- Alabaina, erakunde guztien arteko hitzarmenik ez dagoenez, erakunde gehientsuenek sustatzen dituzten hainbat egitarau, hala nola alfabetatzea, bertsolaritza, euskarazko komunikazioaren prentsa idatzia, zinea euskaraz, euskalgintzan diharduten erakunde euskarazko irakurzaletasuna sustatzea, euskarazko literatura herritarrak euskararen alde sentiberatzeko ekintzak,

Helburukako sailkapenen laburpen orokorra

<i>HELBURUAK</i>	<i>HIRIBURUAK</i>	<i>%</i>	<i>ALDUNDIAK</i>	<i>%</i>	<i>EUSKO JAURLARITZA</i>	<i>%</i>	<i>GUZTIRA</i>	<i>%</i>
Helduen euskalduntze-alfabetatzea	274.244.171	46,3	459.040.368	42,6	7.971.534.000	57,5	8.642.418.539	55,8
Euskararen sustapena	73.446.792	12,4	25.861.018	2,4	86.522.000	0,6	185.829.810	1,2
Elkarteentzako dirulaguntzak	47.925.908	8,0	138.307.683	12,8	190.338.000	1,4	376.571.591	2,4
Literatura eta irakurzaletasuna	5.206.029	0,9	22.829.800	2,1	30.200.000	0,2	58.235.829	0,4
Komunikabideak	33.112.852	5,6	39.357.317	3,7	3.245.100.000	23,4	3.317.570.169	21,4
Euskara-planak	0	0,0	11.998.750	1,1	0	0	11.998.750	0,1
Bertsolaritza	10.545.582	1,5	5.900.000	0,5	12.900.000	0,1	29.345.582	0,2
Euskarazko materialgintza	0	0,0	30.000.000	2,8	265.250.000	1,9	295.250.000	1,9
Etnokultura	473.680	0,1	83.120.383	7,7	32.100.000	0,2	115.694.063	0,7
Antzerkia eta zinea	5.304.030	0,9	43.507.000	4,0	40.600.000	0,3	89.411.030	0,6
Txostenak eta ikerketak	2.000.000	0,3	7.000.000	0,6	56.220.000	0,4	65.220.000	0,4
Hizkuntza-paisaia eta errotulazioa	962.743	0,2	0	0,0	22.000.000	0,2	22.962.743	0,1
Beste gastu-kontzeptu batzuk	10.182.872	1,7	29.600.000	2,7	116.400.000	0,8	156.182.872	1,0
Sentiberatzea eta kanpainak	6.075.000	1,0	3.755.000	0,3	40.500.000	0,3	50.330.000	0,3
Langile-gastuak	119.477.928	20,2	166.603.239	15,5	1.422.490.955	10,3	1.708.572.122	11,0
Funtzionamendu-gastuak	5.234.321	0,9	10.370.000	1,0	337.525.045	2,4	353.129.366	2,3
GUZTIRA	594.191.908	100,0	1.077.250.558	100,0	13.869.680.000	100,0	15.478.722.466	100,0

Azkenik, giza baliabideen gaineko azterketa ere burutu da. Une honetan 300 lagunetik gora ari dira euskara sustatzeko lanean aipatutako herri-administrazioetan: 280 langile Eusko Jaurkitzean (gehienak irakasleak, euskara normaltzeko teknikariak edo itzultzaileak edota horien laguntzaileak –ia sail guztiek dute honelako lanposturen bat–, bestelako teknikariak edo administrariak dira); 29 foru-aldundietan eta beste 26 hiriburu-udalengan (gehienak itzultzaileak dira eta hurrengo multzoan ageri dira euskara normaltzeko teknikariak eta administrari-laguntzaileak).

BIGARREN ZATIA

V. HIZKUNTZA-POLITIKAN ERAGITEN DUTEN ALDAGAIK: INGURUTIK DATOZKION MEHATXUAK ETA AUKERAK

V.1. Mehatxuak

Mehatxu izena eman diegu hizkuntza-politikako helburuak lortzeko oztopo diren aldagaiei, egoerei eta gertakizunei. Honako hauek dira nagusiak:

Berrikitan eskolatutako euskaldun berrien behar funtzionalak eta sinboliko-afektiboak ez betetzeak agerian jar dezake euskara ikasteko ahaleginak ez direla nahikoa atsegingarri.

EAEri begiratuta, gerta liteke erakundeek euskarari ematen dioten babesa aski ez izatea berrikitan eskolatutako euskaldun berrien behar funtzionalak eta sinboliko-afektiboak betetzeko. Euskararen berreskurapenerako kalterik handienetarikoa euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi ondoren, euskararen ezagutzari edo erabilerari eustea baliozko edo atsegingarri ikusten ez duten herritarrengandik etor daiteke. Euskaldun berri horiek jar dezakete agerian euskara ikasteko ahaleginak ez direla nahikoa atsegingarri funtzionalki eta sinbolikoki heldu-aroan hizkuntzaren gaitasunari eusteko. Hortaz, azken bi hamarkadetan Lehen eta Bigarren Hezkuntzak euskalduntzearekin irabazitakoak galera bilaka litezke hurrengo urteetan.

Erdaren aldeko arau sozialaren pean jarraitzeko inertiaren zama. Honekin batera, zerbitzuak eskaintzerakoan, hizkuntza, oinarrizko kalitate-irizpidetzat ez hartzea.

Erakunde publikoek eta pribatuek, belaunaldi berrien beharretara hobeto egokitzeko beren hizkuntza-jokabidea aldatu beharrean, erdaren aldeko arau sozialaren pean jarraitzeko duten inertiaren zama. Erdaraz ere badakitela eta, euskaldunei, eskolatik kanpo euskaraz egiteko aukerak eskueran ez jartzea. Herri-administrazioek zein zerbitzu-enpresek eta elkarteek kalitatea hobetzeko egiten dituzten planetan, hizkuntza ez hartzea oinarrizko kalitate-irizpidetzat.

Informazioaren gizartean samaldan sartzen ari diren erdarazko komunikabideek duten eragin erdaltzale gero eta handiagoa.

Informazioaren gizartean samaldan sartzen ari diren erdarazko komunikabideek duten eragin erdaltzale gero eta handiagoa.

Gastu publikoaren igoerarik ezari eusteko joera.

Gastu publikoaren igoerarik ezari eusteko joera. Horrek dakarren arrisku nagusia, euskara biziberritzeko beharrian berriei erantzuteko behar diren giza eta diru-baliabideak ez eskuratzea da.

Elebakartasunaren aldeko diskurtsoa.

Gizarteko zenbait sektorek duten elebitasunaren aurkako jarrera, hots, elebakartasunaren aldarrikapena.

Helburu eta bideen arteko adostasun falta. Halaber, mehatxua da helburu eta bideen arteko adostasuna bilatu gabe jardutea, nahiaren eta ezinaren artean ibiltzeak etsipena baino ez baitakar.

V.2. Aukerak

Helburuak lortze bidean egin behar den lana erraztu eta laguntzen duten gertaera edota aldagaiak dira aukeratzat hartzen direnak.

Elebitasunaren aldeko jarrera. Herritar gehienek elebitasunarekiko eta euskara sustatzearekiko duten jarrera positiboa. Bereziki aipatzeko modukoak dira jarrera horretan oinarrituz, euskara biziberritzeko oso garrantzitsuak diren eratutako herri-ekimen ugari eta zabalak.

Bezero-jarrera areagotzea. Zerbitzuak eskatzeko edo erosteko orduan herritarrek, gero eta gehiago erakusten duten bezero-jarrera, baita hizkuntzaren arloan ere.

Elebidunen masa kritikoa. Zenbait gunetan dagoen elebidunen masa kritikoa.

Teknologia berriak. Informaziorako eta komunikaziorako teknologia berriek hizkuntza landu, jorratu eta hedatzeko duten ahalmen ikusgarria eta kostuak gutxitzeko ematen duten aukera.

Azken urteotan euskarak lortu duen ospea eta indarra. Euskarak, azken urteotan, arrotzak zitzaizkion hainbat erabilera-eremu irabazi dituen neurrian lortu duen ospea eta indarra.

VI. DATOZEN HAMAR URTEETARAKO ERRONKA NAGUSIAK

Datozen hamar urteetarako erronka nagusiak hiru mailatan bereizita agertuko ditugu hala nola: helburu nagusia; helburu estrategikoak; helburu zehatzak eta proposamen-egitasmoak.

VI.1. Helburu nagusia

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Funtzio soziolinguistikoetan aurrerapauso handiak eman diren arren, euskararen egoera beste hizkuntza gutxituen eta gutxiagora etorri direnen antzekoa da oraindik: hainbat gizarte-esparrutan oso ahula da duen presentzia; gehien aurreratu duen eremuetan ere, egoera ez da inola ere erdaren parekoa. Hala ere, gogoan dugu hizkuntzen berdintasunaren diskurtsoak antzu bihur lezakeela hizkuntza gutxituen aldeko ahalegina: egunerokotasuna irabazita ez dagoenean, arriskutsua izan daiteke lehentasun garbirik finkatu gabe aldi berean eta esparru guztietara hedatu nahi izatea. Horrexegatik, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea. Hizkuntza komunitatearen eskubide kolektiboa ukatu gabe, herritar bakoitzaren hizkuntza-eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezten lortzeko urratsak areagotzea, jakinik, botere publikoek eskubide hauek babesten dituztela; euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea, horrela bakarrik bermatuko baita euskararen biziraupena eta normalizazioa.

VI.2. Helburu estrategikoak

Indarguneak eta ahuleziak bilatzen eta aurkitzen ahalegindu gara lehen. Indarguneak sendotzeko eta ahuleziak osatzeko bideak eskaintzen saiatuko gara orain. Euskararen erabilera gehien eragiten duten arrazoiak bi dira: bata, hiztunok euskaraz eta erdaraz egiteko dugun gaitasuna edo erraztasuna; bestea, inguruan dugun harreman-sarea euskalduna izatea, hots, geure familian, lagunartean, auzoan, kalean, lanean eta esparru formalagoetan solaskide euskaldunak nagusi izatea. Halaber, eragina du, eta ez makala, hizkuntzaren bizitasunaz, indarraz, ospeaz dugun pertzepzioak; azken batean, hizkuntzak duen egiazko balio funtzional edo sinbolikoaz dugun usteak.

Euskara, belaunez belaun eta etenik gabe, ondorengoetaratzeko, euskararen erabilera segurtatzeko eta hizkuntzaren jabeago eta hiztun egokiago izateko baliabideak eskaintzeko proposamenak egingo ditugu, lehentasunak, bidegarritasuna eta eraginkortasuna kontuan izanik.

Hiru helburu
estrategiko:

Beraz, helburu estrategikoak hiru dira:

VI.2.1. Euskara ondorengoetaratzea

**Euskara, belaunez
belaun eta etenik
gabe,
ondorengoetaratzea.**

Euskara, belaunez belaun eta etenik gabe, ondorengoetaratzea. Euskararen geroratzea, familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez eta hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz lortzen da, batez ere.

VI.2.2. Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza

**Datozen hamar
urteotako erronkarik
nagusiena, belaunaldi
berrietako
euskaldunentzat
euskara heldu-aroko
erabilera-eremu
berezi eta
garrantzizkoetarako
atsegin eta gaztelania
bezain baliozko
egitean datza.
Horretarako,
euskarazko
zerbitzuen eskaintza
eskolatik harantzago
eraman eta beste
erabilera-eremu
berezi eta
garrantzizkoetara
zabaldtu behar da.**

Erabiliz zorroztan den tresna da hizkuntza. Erabiltzen ez bada herdoildu ez ezik kamustu ere egiten baita. Horregatik zaindu behar dira ondo familiaren eta eskolaren luzapen eta ingurune diren jardunbide guztiak: kirola, aisia, erlijioa, gune euskaldunenak, enpresa-mundua, administrazioa eta abar. Datozen hamar urteotako erronkarik nagusia, belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara heldu-aroko erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitean datza, esaterako, enpresa-mundurako, aisiarako, kirolerako eta komunikabideetako produktuen kontsumorako, bai eta funtzio sinboliko eta afektiboetarako ere, hala nola, familiako harremanetarako, lagunarteko, gizarteko bizitzarako, kulturarako, eta norberaren burua euskal hiritar jotzeko. Horretarako, euskarazko zerbitzuen “eskaintza” eskolatik harantzago eraman eta beste erabilera-eremu garrantzizkoetara zabaldtu behar da. Euskararen aldeko auzogintza, zerbitzugintza da, hurrengo hamar urteotan, bai herri-aginteei bai euskararen aldeko taldeek egin beharreko ahalegin garrantzitsuena: euskarak bizi-indar osoa edo ohargarria duen bizi-inguru hurbiletan osasun-, hezkuntza-, kirol-, aisia- eta abarreko zerbitzuak euskaraz edo elebrietan eskaintzea.

VI.2.3. Euskararen elikadura

**Hizkuntza eroso eta
erraz hitz egiteko,
elikatutako egin behar da,
liburu, irrati, aldizkari,
egunkari, telebista eta
abarren bidez.**

Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da, liburu, irrati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez. Euskara, bigarren hizkuntza gisa, eskolan ikasi duen euskaldun berriari dituen hizkuntza-ezagupenak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen lagundu behar zaio.

VI.3. Helburu zehatzak eta egitasmo-proposamenak

Ondoren datozen proposamenak euskara biziberritzeko eraginkortasunaren eta bideragarritasunaren irizpideen arabera egindako lehenengo aukeraketa zabalago baten ondorio dira. Gero, aukeratutako proposamenen artean, lehentasunak finkatu dira³.

Edonola ere, ohartarazi behar da ondoko proposamenak egiteko oso kontuan izan direla egun indarrean dauden egitarauak eta gabezia nagusiak. Egun indarrean diren egitarauak indargunetzat hartu diren kasuetan, ez da horien gaineko aparteko aipamenik egiten, dauden-daudenean baliozko ez ezik ezinbesteko ere jotzen baitira.

VI.3.1. Euskara ondorengoetaratzea

Gorago esan denez, euskararen geroratzea edo ondorengoetaratzea, eskolaren, helduen euskalduntze-alfabetatzearen eta familiarren bidez lortzen da, batez ere.

VI.3.1.a. Irakaskuntza

Hizkuntza-politikaren arloan garatutako ekimenen eraginik aldekoena hezkuntza-arloan antzeman da, hain zuzen ere, EAEko eta Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. EAEn, irakaskuntza-sistemako B ereduaren eta bereziki D ereduaren onarpenari esker gertatu da euskararen areagotzea gazteenen artean. Beste aldean, berriz, Iparraldea dago; lurralde horretan euskararen jarraipena belaunaldi gazteenen artean atzeraka doa: euskarazko hezkuntza-sistema ezarri ez izanaren eragin zuzena. Iparraldean 1991n eta 1996an egindako inkesten emaitzek argi asko frogatzen dute esaldi honek dioena: “Une langue qu'on n'enseigne pas est une langue qu'on tue”. Lurralde horretan gero eta guraso euskaldun gutxiago dago euskara familian bertan gerora dezakeena. Hori horrela, gurasoek finantzatutako euskal eskolak ez dira aski eskolumeen masa kritiko bati euskararen jarraipena ziurtatzeko. Diruz lagundutako euskarazko eskolarik gabe, belaunaldi batetik bestera euskaldunen kopuruaren beherakada esponentziala besterik ez du ekarriko etorkizunak. Iparraldea itzulerarik gabeko egoerara doa horrela: ez da bermatuko ezta euskararen biziraupena ere. Diru publikoz finantzatutako euskarazko irakaskuntza ezinbesteko da euskararen jarraipenerako Iparraldean. Eskolatik eta Unibertsitatetik baztertzen den hizkuntzak ez du iraupenik. Bestalde, mugaz bi aldeetako herri-erakundeen arteko harremana areagotu behar da ikerketan ez ezik baita jardun-esparru desberdinetan ere, besteak beste, hizkuntza-politikaz arduratzen diren zerbitzuen arduradun publikoen eta adituen arteko elkarlana sustatuz eta horretarako baliabideak eskainiz.

- **Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.**

³ Hemendik aurrera, bi letra-tamaina eta -tipo erabili dira eginiko proposamenen arteko lehentasunak hobeto adierazteko.

- **Unibertsitateko ikasketak, ikerketa eta sorkuntza euskaraz egiteko eskubidea aitortu unibertsitateko ikasle, irakasle eta ikerlariari, horretarako euskarazko unibertsitate-eskaintza areagotuz, euskarazko irakasleak prestatzeko plana taxutuz, gutxienez enbor-ikasketak euskaraz eskainiz eta lehentasunezko espezialitateak finkatuz.**
- **Lan-munduaren euskalduntzearekin lotutako planaren bidez erabaki Lanbide Heziketan euskaraz eskaini beharreko zikloak, irakasleen euskarazko prestakuntza eta irakasmaterialen eraketa.**
 - Eskolaz kanpoko erabilera-esparruekin (herria-auzoa-lagunartea-aisia) zubiak egiteko euskara-batzordeak osatu.
 - Derrigorrezko ez den ikastaldian (0-3 urte) euskarazko haur-erakundeak edo haur-eskolak eskaini.
 - Irakasle euskaldunak osatu, erdaldunak toki-aldatuz, zahar-saritzea aurreratuz eta IRALE hobetuz.
 - A eredu hobetu, metodologia, irakasleen prestakuntza, euskarazko irakasgaiak eta ikasleen arreta eta euskararenganako atxikimendua hobetuz.
 - Murgiltze-eredua sustatu.

VI.3.1.b. Euskalduntze-alfabetatzea

- **Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.**
 - Emaitzei buruzko gogoeta sakona egin. Kalitate-irizpideak finkatu eta adostu: adierazle egokiak aukeratu, bakoitzaren pisua erabaki, euskaltegien emaitzak aztertu eta onenak saritzeko mekanismoak antolatu. Funtzionarioak zein irakasleak euskalduntzeko egitasmoak sakonki aztertu, neurtu eta eraberritu.
 - Euskalduntze-alfabetatzearen kurrikulu berriak egin (euskalkien trataera eta kultur edukiak kontuan hartuz) eta euskaltegi guztietara hedatu HABEK, ahalegin handiagoa eginez, EHUrekin batera, jardun didaktikoa hobetzeko.
 - Langintza honetan diharduten taldeen normalizaziorako urratsak areagotu: eskualde mailan, ikasmaila guztiak eskaini euskaltegien egungo neurria irizpide horretara egokituz

VI.3.1.c. Familia bidezko jarraipena

- **Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurraren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (haurtzaindegiak, zaindariak, ...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.**

- Jarraipen-programak antolatu ukipen-guneetan.

VI.3.2. Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza

Euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik beste erabilera-eremuetara ere zabaldu behar da, heldu-aroko eremu berezi eta garrantzizkoetarako gaztelaniak besteko balioa duela erakusteko. Euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza dira, hurrengo hamar urteotan, bai herri-aginteei bai euskararen aldeko taldeek egin beharreko ahalegin garrantzitsuenak: euskaraz bizi-indar osoa edo ohargarria duen bizi-inguru hurbiletan osasun-, hezkuntza-, kirol-, aisia- eta abarreko zerbitzuak euskaraz edo elebrietan eskaintzea.

Zerbitzuak etengabe eskaintzeak dakar herritarrek zerbitzu horiek eskatzea: EAEko hezkuntza-alorreko hizkuntza-politikak argi erakusten du hizkuntza-politikaren oinarri-oinarrizko printzipio horren indarra eta egokitasuna. Funtsean, merkatuko zerbitzu eta produktu berriekin gertatzen den bezalaxe, hizkuntza-zerbitzuok eskuragarri izateak dakar biztanle guztiak jakitun izatea hizkuntza-zerbitzu horiek badirela eta gizarterako garrantzizko diren behar funtzional eta sinbolikoak bete ditzaketela. EAEn, euskarazko irakaskuntzaren eskaintzak, bai Lehen Hezkuntzan bai Bigarren Hezkuntzan, ia hamar urte daramatza, eta hain zuzen ere eskaintza horrek lagundu du eskolumeen artean euskara biziberritzen. EAEn euskarazko irakaskuntza eskuragarri egon den bitartean, erakundeek babesa lortu da euskararentzat hainbat eremu irabazteko: herri-administrazioak, enpresa-mundua, komunikabideak, kultura, kirolak, aisia,...

Gune soziolinguistikorik euskaldunenetan, indartu egin behar da eskolan, gizarteko zerbitzuetan, administrazioan, enpresetan eta merkataritzan herri-erakundeek euskarari ematen

Euskaldun zaharren sarea zaindu eta indartu egin behar dela gauza jakina da. Horrexegatik, gune soziolinguistikorik euskaldunenetan, biztanleen %80k edo gehiagok euskara hitz egiten duen tokietan edo biztanleen %45-79k euskara jakin eta hitz egiten duenetan, eutsi ez ezik indartu egin behar da eskolan, gizarteko zerbitzuetan, udal- eta lurralde-mailan, enpresetan eta merkataritzan herri-erakundeek euskarari ematen dioten babesa. Are gehiago, gune soziolinguistikorietan euskara-ikasleek atsegin handiagoa lor dezakete eta aukera gehiago dituzte heldu-arora iritsitakoan euskara erabiltzen jarraitzeko. Euskara bigarren

dioten babesa.

hizkuntza gisa ikasten duten ikasleei pizgarriak eskaintzeko aukera hori aprobetxatu egin behar da esandako bi eremu soziolinguistikoko horietan, esaterako, enplegua, aisia, kirola eta kultur jarduerak euskaraz eskainiz. Euskaldun berri horiek, hamar edo hogeit hamar urte barru, B edo D ereduetan euskara ikasteko ahalegina “funtzionalki edo sinbolikoki” atsegingarria eta probetxugarria izan dela esan dezakete jendaurrean. Bestalde, eremu soziolinguistikoko horietan, ikasle helduek aukera gehiago dituzte euren euskara-gaitasuna sendotzeko eta arlo publiko gehiagotan erabiltzeko. Euskara ikasten duten ikasleek ere aukera gehiago dituzte eremu soziolinguistikoko horietan beren seme-alabekin modu naturalean euskaraz hitz egiteko, euskara familiako hizkuntza bilakaturik. Gainera, euskaldunenak diren bi gune soziolinguistikoko horiek, euskaldun-sare trinkoagoa dutenez, euskara belaunez belaun geroratzeko aukera handiagoak dituzte. Euskararen erabilerari eusteko eta areagotzeko, hizkuntza-politikaren alorreko ahalegin handiak egin behar dira eremu soziolinguistikoko horietan. Eremu horietan egin daitezkeen aurrerapen guztiek balio dezakete euskaldunen kopuru txikiko eremu soziolinguistikokoetako ikasleei erakusteko euskara-gaztelania elebitasuna posible ez ezik probetxugarria ere izan daitekeela, funtzionalki nahiz sinbolikoki. Gainera, euskaldun zaharrek lagun liezaiokete bigarren hizkuntza gisa euskara eskolan ikasi duen euskaldun berriari dituen hizkuntza-ezagupenak sendotzen eta euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen. Lagun liezaiokete, halaber, harreman-sare euskalduna zabaltzen.

Era berean, datorren hamarkadan, arreta berezia jarri beharko zaio euskararen erabilerari euskaldunen kopuru altu samarra duten hiri-inguru erdaldunagoetan ere.

Era berean, datorren hamarkadan, arreta berezia jarri beharko zaio euskararen erabilerari hiri-inguruetan: Donostia, Bilbo, Gasteiz, Iruñea eta Baiona-Miarritze-Angelun, bai eta erdi-mailako herri eta hirietan ere, Arrasate, Basauri, Donibane-Lohizune, Durango, Eibar, Gernika, Hendaia, Laudio, Maule, Ondarroa eta Tolosan, esaterako, Euskal Herri osoan egin diren antzeko azterketa soziolinguistikokoak burutuz. Horien tankerako hirietan jaso dute euskaldun berri askok euskara bigarren hizkuntza legez, eta horrexegatik hain zuzen aurkitu behar dituzte hiri horietan pizgarri nahikoak heldu-aroan euskara erabiltzen jarraitzeko. Euskaldun-kopuru altua duten hiri-barrutiek herri-erakundearen laguntza beharko lukete hiri-jarduera euskalduneko eremuak sendotzeko eta zabaltzeko. Bada hurrengo hamarkadarako beste erronka bat ere: frogatu behar zaie “eskolame euskaldun berriei” heldu-aroan ere euskara erabiltzen jarrai daitekeela euskaldunen kopuru altu samarra duten hiri-inguruetan, eta, halaber, etxeko hizkuntza nahiz seme-alabekin erabiltzekoa izan daitekeela. Beste lurralde batzuetan gertatu den antzera, eskolorduz kanpo eta asteburuetan, kirolak eta kultur ekintzak euskaraz eskaintzen dituzten eskolako

komunitate-zentroak oso lagungarri izan daitezke gune soziolinguistikorik erdaldunenetan gelaz kanpoko euskararen gaitasun-erabilerei eusteko.

VI.3.2.a. Administrazioa

- **Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioako erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.**
- **Zerbitzuak kontratatzerakoan, instalazioak erabiltzeko baimenak emateko orduan edota edozein jardun-esparrutan dirulaguntzak banatzeko deialdiak egiten direnean hizkuntza-irizpideak ezarri, batik bat gune euskaldunenetan, esate baterako, arkitekto, aparejadore, aholkulari juridiko, aseguru-etxe eta abar kontratatzerakoan.**
 - Lanabes informatikoak euskaraz eskueran izan daitezen urratsak egin: bulegoko tresneria, hardwarea edota softwarea erosten denean hizkuntza-irizpideak ezarri.
- **Herri-administrazioetan (bereziki udal eta eskualdeetan) euskararen erabilera normalizatzeko plangintzak gauzatu. Horretarako, euskara-zerbitzuak sendotu edo eratu eta hizkuntza-normalizatzaileen prestakuntzaz arduratu.**
 - Administrazioan erabiltzen diren testu juridikoak euskaraz egokitu, lexiko berezitua finkatzen jarraitu eta terminologi kontsultak egiteko zerbitzu eraginkorra eskaini.
 - Unibertsitatean, Zuzenbide eta Ekonomia ikasketak euskalduntzeari lehentasuna eman, horiek baitira administrazioako goi-mailako teknikarien harrobi nagusiak.

VI.3.2.b. Gune euskaldunenak

- **Udalerrri euskaldunenetako osasun- eta gizarte-zerbitzuetako sendagile, erizain, pediatra eta langileak euskaldundu.**
 - Merkataritzan eta enpresa-munduan ahozko zein idatzizko hizkuntza-paisaia euskaratu: a) ageriko errotulazio guztia euskaraz izan; b) denda, taberna eta abarretako erabilpen mintzatua areagotu.
 - Herriko sareak euskalduntzeari eutsi. Lehentasunik handiena, gazteen sareek dute; sare berriak eratzen dituztenak, nagusiki gazteak baitira eta errazagoa delako sare berriak euskaratzea jadanik daudenetan euskara sartzea baino.
 - Udal-langileak euskaldundu eta oinarritzko bitartekoak eta baliabideak landu.

VI.3.2.c. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak

- **Euskararen injinerutzaren industria bultzatu: autoria- eta edizio-erremintak (ortografia- eta gramatika-zuzentzaileetan oinarrituta daudenak), itzulpenari laguntzeko tresnak (hala nola, hiztegi elektronikoak eta terminologi baseak), gai-eremuetara eta testu-motetara egokituriko informatikako itzulpen-sistemak eta ahotsaren ezagupen eta sintesian egindako aurrerapenak.**
- **Aplikazio konkretuetatik kanpo egongo den hizkuntz analisirako oinarritzko tresnen azpiegitura sortu. Azpiegitura honek bilduko lituzke datu-base lexikala, corpus-bilduma elebakarra eta eleanitza, analisi eta sintesi morfologiko eta sintaktikoa, analisi semantikorako oinarriak.**
- **Euskara ikasteko multimedia-sistemak garatu.**
- **Informazio-teknologiaren arloko hizkuntz industriaren clusterra eratzea bultzatu** Industria Sailak 1997an hasi zuen Zientzi eta Teknologi Plan estrategikoaren barnean.
- **“Plug-in” software-aplikazioak garatu, bulegotika-aplikazioetan hiztegi automatikoak, ortografi zuzentzaileak eta sinonimoen hiztegiak ezartzeko.**
 - Informazio-kanpainak antolatu eta sentiberatze-lana egin informazio-produktuen eskaria gero eta handiagoa izan dadin herritarren (jolas eta informaziorako), enpresen (informazio, interpretazio eta itzulpenarako) eta sektore publikoaren aldetik (informazio, itzulpen, interpretazio eta dokumentaziorako).
 - Euskal kulturaren ondareari buruzko informazioa digitalizatu eta hedatu.
 - Bulegotika eta telematikaren arloan euskararen presentziari euskarria emango dioten funtzionalitateak garatu.
 - “Multimedia Euskarriko Zentzuen” erabilera bultzatu eta horietarako sarbidea INTERNET bidez sustatu. On-Line Multimedia-liburutegien kontzeptua Euskal Herriko Unibertsitateko campusetan zabaldu.
 - Merkatuan zabalkunde handia duten produktuen lokalizazioari lehentasuna eman.
 - Jarraibide horiek oinarritzat hartuta, hona herri-administrazioen egitekoak: orain arte egindako ekimenak ordenatu, baloratu eta zabaldu; hizkuntza-baliabideen azpiegitura eraikitzeke euskarria prestatu; erabiltzaile-komunitate prestatua eta aurreratua sortu; edizio- eta itzulpen-plataforma edo sareak sortu, baita denen eskura egon daitezkeen hiztegi elektronikoak ere.

VI.3.2.d. Enpresa-mundua

- **Enpresetan euskararen erabilera areagotzeari begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari-elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren araberako proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.**
- **Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren eta Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren partehartze zuzena lortu, batez ere, euskararen erabilera areagotzeko proiektuak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko teknikariak trebatzeko eta proiektu horiek gero eta enpresa gehiagotan gauzatzeko baliabideak esleitzeko. Sail horiek, halaber, plangintza egokiak jarri beharko dituzte abian menpean dituzten erakundeetan (Eusko Trena, EITB, Naturgas, eta abarretan).**
 - Kanpaina erraldoiak antolatu beharrean, banan-banako sentiberatze-jardunak egin industriaz, merkataritzaz, lanaz eta lanbide-heziketaz arduratzen diren sailekin; enpresei zerbitzu emateko dauden enpresa publikoekin; enpresari, merkatarari eta profesionalen elkargoekin, eta udalerrri euskaldunetako enpresariekin, enpresa-munduko eragileen partehartzea lortzeko.
 - Unibertsitateak, zentro teknologikoez, lanbide-heziketako ikastetxeek eta institutuek antolatzen dituzten langileak birziklatzeko ikastaro zenbait euskaraz egin.
 - Dirulaguntza publikoak jasotzen dituztenez, hizkuntza-irizpideak ezarri enpresa-munduan diharduten enpresa-erakunde, sindikatu, merkataritza-ganbara eta elkargo profesionalak antolatzen dituzten ikastaroetan, orain arte bezala erdara hutsean izan ez daitezten.

VI.3.2.e. Aisia

- **Aisialdian lanean diharduten talde indartsuekin (parrokiak, eskautak eta abar) zein aisialdirako begirale eta zuzendarien prestakuntzan ari diren eskolekin (Hezibide, Edex, ...) plangintza zehatza egin, begiraleen hizkuntza-trebakuntza antolatzeko eta aisialdiko ekintzetan euskararen erabilera areagotzeko neurri zehatzak eta egokiak har ditzaten uneoro.**
 - Begiraleen eskoletan euskarazko adarra bermatu.
 - Euskararen aldeko ekintza soilen ordez, inguru hezitzailean eskaini aisialdi-zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia.
 - Iparraldeari dagokionez, garrantzizkoa da umeek eta gaztetxoek euskaraz irakurtzea, jolastea, irri egitea, euskara molde ludiko batean erabiltzea, *Musika, Komunikazio eta Kulturaren erakundeak* baliatuz.

VI.3.2.f. Kirola

- **Hiruzpalau urteko plan estrategiko batean kirol-arloa euskalduntzeko hiru lan-esparru nagusi taxutu: materialaren sorkuntza eta hedapena; entrenatzaileentzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak; sentsibilizazio eta zabalkunde orokorra zein herri-mailakoa.**
- **Udal-kiroldegietako langileak edo enpresa-zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak ezarri. Udalen eta ekimen pribatuaren esku dagoen “Denontzako Kirola” programan euskarazko eskaintza bermatu. Federazioen laguntzaz euskararen erabilera areagotu jendaurreko kirol-agerpenetan: iragarki, megafonia, errotulazio eta argitalpenetan.**
 - Foru-aldundiek 16 urte arteko ikasleekin antolatzen dituzten txapelketetan euskara bultzatu.
 - Begirale, irakasle, prestatzaile, arbitro eta buruzagien kirol-formakuntzarako etxeetan euskarazko gaiak gehitu urtez urte.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz lurraldeetako federazioetako jarduna euskalduntzeko plangintza egin Eusko Jaurlaritzarekin: langileak euskaldundu eta argitalpenetan eta elkarrenganako komunikazioan euskara erabili.

VI.3.2.g. Erlijioa

Katekesia, eliz otoiz eta kantuak izan dira euskaraz irakurtzen ikasteko bide ia bakarra mendeetan. Eskolan ikasten da gaur, eta elizara ere ez da lehen adina joaten. Hala ere, eragin handia du elizaren jardunak, erlijioa bezalako sentimendu bizi batean hizkuntza errotzeak irmotasun handia ematen baitio hizkuntzari.

- Euskaldunak nagusi diren lekuetan euskaraz egin: euskaldunez eta erdaldunez osaturik dagoen kristau-elkarteari ez litzaizkioke elizkizunak erdara hutsean eskaini beharko, are gutxiago, haurrak eta gazteak elebidunak direla jakinik. Sarritan egiten den euskara hutsez edo erdara hutsez banaketa gairitu eta euskaldunak nagusi diren tokietan euskara hutsean egiten jarraitzeaz gain, beste tokietan, meza elebidun gehiago eskaini.
- Bihar-etziko eliz arduradunen prestaketaz arduratzen diren Euskal Herriko Teologi Fakultate eta etxeei gai batzuk, bederen, euskaraz emateko eskatu, erlijio-gogoeta bertan sendo erro dadin eta Euskal Herriko Elizak inkulturazioa eta inguru elebidunen behar den elkar-eramana bultzatzea.
- Euskarari buruzkoetan, ahalik eta bateratsuen jokatzeari eskatu elizbarrutiei.

VI.3.3. Euskararen elikadura

Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada elikatu egin behar da, liburu, irrati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez. Euskara, bigarren hizkuntza gisa, eskolan ikasi duen euskaldun berriari dituen hizkuntza-ezagupenak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen lagundu behar zaio. Euskararen elikadurak bi arlo nagusi ditu: bata sorkuntza eta bestea kontsumoa. Beraz, lehenik eta behin, euskarazko kalitatezko sorkuntza sustatu eta babestu behar da eta, gero, elikadura hori kontsumitua izan dadin, produktu horien gaineko informazioa, motibazioa eta inplikazioa sustatu eta babestu. Bai kalitatezko sorkuntzak eta bai kontsumoak, kultur industriaz hitz egitera eta hein horretan kudeatzera garamatza.

VI.3.3.a. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea

- Irakasleak etengabe prestatu euskara batuaren eta euskalkiaren artean zubiak egiteko, eta euskalkietan bizi-bizirik dauden egiturak eta erregistro diferenteen ereduak irakatsi ikasleei, tokian tokiko hizkerara egokituz.
- Etxeko hizkuntza aintzat hartu, naturaltasuna lortzeko.
- Hiztegi batua amaitu eta argitaratu. Terminologia-lanaren plangintza egin datozen urteotarako.
- Hizkuntza-paisaia ugaldtu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu.
- Euskara hobetzeko ikastaroak antolatu, euskaltegietako irakasleentzat, komunikabideetako esatari eta kazetariarentzat.
- Informatizatuta dauden euskararen corpusak modu erosoan erabiltzeko aukera eskaini.
- Kezka eta zalantzak argitzeko bitartekoak jarri: telefono linguistikoa, aholku-taldeak, galdekizunak, berripaperak eta abar.

VI.3.3.b. Prentsa idatzia

- **Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.**
 - Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresatratara eman behar dio.
 - Euskarazko prentsak elkarlana bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik

handiena atera, kalitatea hobetu eta produktu berriak eskaini behar ditu.

VI.3.3.c. Liburugintza

- Datozen urteotan orain arte baino arreta handiagoa jarri erosle eta irakurleengan, irakurzaletasuna bultzatuz, marketina antolatuz, merkatua zabalduz, EITBren, eskolen, liburudenden, liburutegien eta liburu-azoken bidez.
- Merkatu-zirkuitu desberdinetarako produktuak ekoiztu, salmentagune bakoitzean egoki izango direnak: gazte-literatura, bide-liburuak, gidak, komikiak eta abar. Kioskoan dago hutsunerik handiena, eta, besteak beste, oso kokagune aproposa da faszikuluka zabaltzen diren bildumentzat.
- Euskal liburuarekiko politika bateratua egin, lurralde eta sail administratibo desberdinetan.
- Irakurzaletasuna sustatzeko hitzarmenak egin Administrazioaren, Euskal Editoreen, Euskal Idazleen eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkarten artean.

VI.3.3.d. Irratia

- Entzulea erakartzeko interesgune bizi-bizirik sortu, orain, garai batean ez bezala, irratiaz gain komunikaziorako eta entretenimendurako aukera ugari baitugu etxean.
- Irratiko esatari-kazetari eta teknikari euskaldunen prestakuntza-plangintzak bideratu hizkuntzaren arloan batik bat.
- Euskaraz bakarrik ari diren irratik guztien arteko lankidetzak bideratu irratien hasi, adibidez, entzule berriak irabazteko kanpaina berezia antolatuz. Bide-erakusle izan daiteke Iparraldeko Garapen Kontseiluak Baionako Gure Irratiari, Donibane-Garaziko Irulegiko Irratiari eta Mauleko Xiberoko Bozari eskatu berri diona: hiruren artean sei orduko programazio bateratua garatzeko.
- Irrati euskaldunen eta euskara ikasten ari direnen arteko harremanak erraztu.

VI.3.3.e. Telebista

- Aisialdian euskararen erabilera ziurtatzea nahi badugu ezinbestekoa da telebista orokorra egitea: familia osoarentzako programak, irekiak, denontzako modukoak, jende guztiarengana heltzeko modukoak eta arrakastatsuak.
- Euskarazko sorkuntza-munduarekiko harremanak zuzendu eta komunikazio-bideak eraiki behar ditu ETB1ek: kultur saioak, gazte-musika, tertulia literarioak, euskal musika, kantua, antzerkia eta abar.
- Telebista-eskaintzan datorren aldaketa dela eta, estrategia eta ildo berriak begiz jo behar dira, epe laburrean, erdarazko telebistak oraindik ere are

nagusiago izango baitira.

- Euskararen tradizioan oinarriturik, telebistako testuak errazten eta gozoago bihurtzen jarraitu.
- Helburu estrategikotzat umeak, gazteak eta euskalduntze-alfabetatzeko ikasleak hartu behar ditu Euskal Telebistak.
- Nahiz teletestuaren bidez nahiz telebista Internetekin lotuta, hizkuntzari buruzko saioak egin: ikastaroak, lehiaketak, aholkuak, galde-erantzunak, umeentzako saioak eta abar.
- Euskarazko herri-telebisten garapen-markoa lantzeko lan-ildo bat martxan jarri behar da, proiektuok bultzatzen ari diren eragile sozialen eta erakunde publikoen artean.

VI.3.3.f. Publizitatea

- Euskaldunen merkatua eta honen kontsumo- eta errentagarritasun-ahalmenak aurkeztu publizitate-prozesuko eragileei (enpresa eta publizitate-agentzia handiei batez ere) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EITBk eta Euskararen Gizarte-Erakundeen Kontseiluak, ahulezietan aipatutako “inertzia”, “errentagarritasun eza” eta “konnotazio negatiboak” neurri batean behintzat neutralizatzeko. Uste ezezkorrak, ohiturarik ezarena, errentagarritasunik ezarena eta abar gainditzeko publizitatea euskaraz egiteak dituen abantailak agertzen saiatu.
- Herri-erakundeek euskarazko publizitatearen alde jarri, publizitate-prozesuko eragileen ondoan. Areago, euskarazko komunikabideak gizartearen begietarako edertzeko lana ere egin beharko lukete.
- Enpresa-estrategia erakargarriak eta eraginkorrak jarri indarrean, enpresa publiko, erdi-publiko eta enpresa pribatu enblematikoak ere beren orrietan iragarle izan daitezten.

VI.3.3.g. Kulturgintza

- Haurrei eta gazteei zuzendutako kultur ekoizpenak lehenetsi, euskara biziberritzeko duten garrantziagatik.
- Euskaraz bakarrik jaso daitekeen hori irrikagarri egiten ahalegindu eta horren berri eman erdaldunei ere; hau da, euskal kulturaren emaitzak barreiatu, euskaraz ez dakienak zerbait galtzen duen irudipena izan dezan. Erdarazkoei aurea hartu.
- Euskara ulertzeko gai direnak ere erakartzen saiatu.
- Administrazio guztien arteko loturak sendotu.
- Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.

VII. HIZKUNTZA-POLITIKARAKO BEHAR DIREN GIZA ETA DIRU-BALIABIDEAK

Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak giza eta diru-baliabideez egin duen azterketak erakutsi du, eskueran ditugun bitartekoei ahalik eta etekinik onena ateratzeko, elkarren arteko koordinazioa hobetzeko ahaleginak areagotu beharra dagoela EAEko herri-aginteen artean, besteak beste, honako bost gai edo alor nagusi hauen inguruan:

- **Itzulpen-politika:** Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legeak aurreikusitako Itzulpen Zerbitzu Ofizialaren antolaketarako eta itzulpen-politikarako irizpideak bateratzeko gogoetari ekin beharko litzaioke lehenbailehen.
- **Hizkuntza-irizpideak:** Euskararen erabilera normalizatzea ez da erakunde bakoitzean dagoen atal jakin bakar baten egitekoa, administrazioko sail eta atal guztiena baizik. Hain zuzen ere, pentsaezina litzateke atal bakar batek egun dituen baino askoz ere baliabide gehiago izanik ere, horrekin bakarrik, administrazioaren jarduna euskaldunduko litzatekeenik. Hori dela eta, euskararen erabilera normalizatzeko berebiziko garrantzia du administrazioaren honako atal edo jardun-esparruotan hizkuntza-irizpideak adostea:
 - eskaintzen dituzten zerbitzuetan
 - argitalpenetan
 - dirulaguntza-deialdietan
 - erosketa- eta kontratazio-politikan eta
 - langileen etengabeko prestakuntza-politikan
- **Funtzionarioen euskalduntze-alfabetatzea:** Funtzionarioak euskalduntzea izan da, azken urteotan, administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko eman den urratsik behinenetakoa. Horretan asko aurreratu den arren, oraindik orain irizpide desberdinak, zenbaitetan kontrajarriak ere, erabiltzen dira, besteak beste, funtzionarioak euskalduntzeko eta haien hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko baliabideak antolatzerakoan, euskara-ikastaroetara joateko baimenak ematerakoan edota sozietate publikoetako langileak euskalduntzeko helburuak ezartzerakoan. Oso onuragarria litzateke horiek guztiak bateratze-bidean jartzeko urratsak ematea.
- **Euskararen sustapena:** Lehenago ere esan denez, ez dira oso ugariak Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek osagarritasun-irizpidearen arabera elkarlanean bideratzen dituzten egitarauak, nahiz eta, maiz askotan, jardun-esparru bereko edo beretsuko euskara-elkarte eta erakundeekin lan egiten duten. Horrela, nekeza da aipatutako elkarte horiek dituzten egiazko premien berri zehatza izatea eta horiei emaniko dirulaguntzen jarraipenik egokiena egitea. Beraz, ezinbestekoa da, toki eta maila desberdineko erakundeen berezitasunak berezitasun, elkarren arteko koordinazioa hobetzea bai eta inguruan dituzten herri- edo euskara-elkarteekiko harremanak egun baino era koordinatuagoan bideratzea ere.

Administrazioak finkatu egin beharko luke zeintzuk diren estrategikotzat (eta, beraz, “ezinbestez” sustatzekotzat) jotzen dituen jarduera-esparru, ekimen edo elkarteak, bai euskalgintzan eta baita gizarteratze-eremuan ere. Behar-beharrezkoa da, Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak horretarako proposamena lantzea, gehienez ere urtebeteko epean.

- **Corpus-plangintza eta hizkuntzaren industriak:** Euskaltzaindiarekin sinatutako hitzarmena euskararen corpora bildu, landu eta gizarteratzeko herri-aginteez izan duten kezkaren erakusle egokia da. Aldi berean, herri-erakundeek euskalgintzan diharduten bestelako erakunde eta elkarteekin duten harremana antolatze bide-erakusle aparta da. Izan ere, Euskaltzaindiarekin aurrerapauso handiak eman diren arren, terminologian, toponimian, oinarrizko erreferentzia-obretan, euskarazko katalogazioan edota euskara lantzeko hizkuntzaren industrien garapenaz aritzean ez dira tamaina horretako urratsak eman. Beraz, alor hauetan herri-aginteen politika zehazteko eta norabide berean jartzeko urratsak eman beharko lirateke.

Egin den azterketa-lanak, bestalde, honako beste ondorio hau ere begi-bistan jarri du: euskararen erabilera normalizatzeko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak lehenetsitako helburuak gauzatzeko ezinbestekoa dela, datozen urteotan, egungo baliabideak, urtez urte, haztea. Izan ere, egungo giza eta diru-baliabideei ahalik eta etekinik onena ateratzeko erakundeen arteko koordinazioa hobetzeak ez baitu ekarriko berekin datozen urteotarako lehenetsi diren erronka berri nagusiei aurre egiteko behar besteko oinarrizko baliabiderik. Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak prestatu beharko luke, gehienez ere urtebeteko epean, gutxieneko giza baliabideei eta aurrekontu arruntekiko diru-proporzioei buruzko proposamen zehatza.

HIRUGARREN ZATIA

VIII. EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA GAUZATU ETA HORREN JARRAIPENA EGITEKO URRATSAK⁴

Eusko Jurlaritzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu ostean, litekeena da lehenetsitako helburu eta egitasmoak gauzatzeko nolabaiteko lege-garapenik behar izatea. Beraz, lege-gaietan adituak diren kideez osatutako batzorde-atala antolatu beharko litzateke Euskararen Aholku Batzordearen baitan: Lege Garapeneko Batzorde-atala.

Bestalde, Plan Nagusian onartutako helburu zehatz eta egitasmo-proposamenen betetze-maila ere jarraitu beharko du aurrerantzean Euskararen Aholku Batzordeak. Horretarako, onartutako helburu edo egitasmo-proposamen bakoitza neurtzeko ebaluazio-adierazleak finkatzeko eta horien jarraipena egiteko batzorde-atala osatzea litzateke egokiena: Jarraipeneko Batzorde-atala.

⁴ Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak 1998ko ekainaren 24ko bileran Lege Garapeneko eta Jarraipeneko batzorde-atalak eratu zituen.

IX. EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA EGITEKO PROZEDURAREN AZALPENA

IX.1. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia burutzeko emaniko urratsak

1996-07-17	Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren lehen bilera. Batzorde-atal Iraunkorra osatu zen.
1996-10-23	Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren bigarren bilera. Batzorde-atal bereziak osatu ziren.
1996-11/12	Hizkuntza Politikarako Sailordetzak eztabaidarako oinarrizko txostenak enkargatu zizkien adituei.
1997-01	Txostenak aurkeztu ziren batzorde-ataletan eta txostenei oharrak egiteko aldia zabaldu zen.
1997-04-16	Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea eratu zen, egungo egitarau nagusiak zein giza eta diru-baliabideak aztertzeko.
1997-07/10	Txostenak eta oharrak batera bildu eta laburtu egin ziren batzorde-atalei ahuleziak, indarguneak eta proposamenak aurkezteko.
1997-10	Batzorde-ataletan, erabilera-eremuz eremuko indarguneak, ahuleziak eta proposamenak ordenatu eta baloratu ziren.
1997-11-19	Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren hirugarren bilera. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren lehen zirriborroa aurkeztu zen.
1998-01	Batzorde-ataletako bilerak egin ziren, proposamenen hurrenkera lehenesteko.
1998-03	Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordeak egungo aurrekontuen eta giza baliabideen gaineko txostena burutu zuen.

- 1998-05-20 Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren laugarren bilera, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren bigarren zirriborroa aurkezteko. Erabilera-planei, Geroratzeari eta Komunikabideei buruzko batzorde-atalak desegin ziren eta Lege Garapeneko eta Jarraipeneko batzorde-atalak eratzea erabaki zen.
- 1998-06-24 Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren bosgarren bilera. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren behin betiko testua onartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeari aurkezteko. Garapeneko eta Jarraipeneko batzorde-ataletako kideak izendatu ziren.
- 1998-07-28 Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzea erabaki zuen.

IX.2. Azpibatzerdeak eta kideen zerrenda

Euskararen Aholku Batzerdeak honako egitura hau jarri zuen martxan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari buruzko proposamenak egiteko:

Euskararen Aholku Batzerdearen Batzerde Osoa

Administrazioetako ordezkariak

ARDANZA, JOSE ANTONIO	Lehendakaria
GARMENDIA, MARI CARMEN	Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua
ARIZTONDO, JOSUNE	Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako sailburuordea
OREGI, ENEKO	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Estrategia eta Plangintza sailburuordea
URIBEETXABERRIA, TOMAS	Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Foru diputatua
MUJIKA, JUAN CARLOS	Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara zuzendaria
HUIZI, XABIER	Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Normalizatzeko zuzendaria
ZARRAOA, IÑAKI	EITBko zuzendari nagusia
AZKUE, JOKIN	HABEko zuzendari nagusia
ZENARRUZABEITIA, IDOIA	Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Koordinazioko idazkari orokorra
HARITSHELAR, JEAN	Euskaltzainburua
UGARTETXEA, JOSU	Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) ordezkaria
ILLARREGI, MIKEL	Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) ordezkaria

Adituak

ALZOLA, NEREA
ARANGUREN, M^a JESUS
ARIZKORRETA, ANDRES
ARRUTI, IÑAKI
ARTEAGA, JESUS M^a

Horren ordez, LUIS OLAIZOLA, ekainaren
23ko 120/1998 Dekretuaren bitartez.

AZKARATE, MIREN
BARCELO, FERMIN
BILBAO, LOREA
DE FELIPE, NATXO
EGUZKITZA, ANDOLIN
ELLAKURIA, ARANTZA
ERKIZIA, JOSEBA
ERRAZTI, URTZA
ETXEZARRETA, EUSTASIO
GALDOS, IMANOL
GOIENETXE, JESUS
HEGUY, TXOMIN

Horren ordez, JEAN ETCHEGOIN, irailaren
10eko 203/1997 Dekretuaren bitartez.

IÑIGO, JOXE JABIER
MENDOZA, JOSE LUIS
OSA, ERRAMUN
OYHARTZABAL, BEÑAT
PEREZ MENDIZABAL, XABIER "EUSKITZE",
RODRIGUEZ, JOSE M^a
UNZUETA, ANJEL
URKULLU, IÑIGO

Idazkaria

AIZPURUA, XABIER

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako
Sailordetzako Ikerketarako eta Euskara
Sustatzeko zuzendaria

Atxikitako funtzionarioa

MATEO, MIREN

Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko
Zuzendaritzako Informazio eta Dokumentazio
zerbitzuburua

Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde-atal Iraunkorra

Administrazioaren ordezkariak

ARDANZA, JOSE ANTONIO	Lehendakaria
GARMENDIA, MARI CARMEN	Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua
ARIZTONDO, JOSUNE	Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako sailburuordea
OREGI, ENEKO	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Estrategia eta Plangintza sailburuordea

Adituak

ALZOLA, NEREA BILBAO, LOREA ERRAZTI, URTZA HEGUY, TXOMIN	Horren ordez, JEAN ETCHEGOIN, irailaren 10eko 203/1997 Dekretuaren bitartez.
MENDOZA, JOSE LUIS	

Idazkaria

AIZPURUA, XABIER	Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzako Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko zuzendaria
------------------	---

Atxikitako funtzionarioa

MATEO, MIREN	Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Informazio eta Dokumentazio zerbitziburua
--------------	--

**Euskararen Aholku Batzordearen
Erabilera-planei buruzko Batzorde-atala**

EABko Batzorde Osoko kideak

ARIZTONDO, JOSUNE

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza
Politikarako sailburuordea. Batzordeburua

ARIZKORRETA, ANDRES
BILBAO, LOREA
ERRAZTI, URTZA
GALDOS, IMANOL
HUIZI, XABIER
IÑIGO, JOXE JABIER
UNZUETA, ANJEL

Adituak

ARRIETA, JON
AURREKOETXEA, ARANTZA
EGIA, GOTZON
SAGARNA, ANDONI

Idazkaria

AIZPURUA, XABIER

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako
Sailordetzako Ikerketarako eta Euskara
Sustatzeko zuzendaria

Atxikitako funtzionarioa

MATEO, MIREN

Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko
Zuzendaritzako Informazio eta Dokumentazio
zerbitziburua

Txostengileak

AURREKOETXEA, ARANTZA
BARRENETXEA, TERESA
GABILONDO, AMAIA
GALDOS, IMANOL
ILLARREGI, MIKEL
RODRIGUEZ, JOSE M^a
UNZUETA, ANJEL
URIZAR, URRI

**Euskararen Aholku Batzordearen
Euskararen geroratzeari buruzko Batzorde-atala**

EABko Batzorde Osoko kideak

ARIZTONDO, JOSUNE

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza
Politikarako sailburuordea. Batzordeburua

ALZOLA, NEREA

ARANGUREN, M^a JESUS

ARRUTI, IÑAKI

AZKUE, JOKIN

ELLAKURIA, ARANTZA

OREGI, ENEKO

OSA, ERRAMUN

Adituak

BACHOC, ERRAMUN

EKISOAIN, JUAN JOSE

ZALBIDE, MIKEL

Idazkaria

AIZPURUA, XABIER

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako
Sailordetzako Ikerketarako eta Euskara
Sustatzeko zuzendaria

Atxikitako funtzionarioa

MATEO, MIREN

Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko
Zuzendaritzako Informazio eta Dokumentazio
zerbitziburua

Txostengileak

AZKARATE, MIREN

AZKUE, JOKIN

HEGUY, TXOMIN

LOPETEGI, ESKARNE

MENDOZA, JOSE LUIS

OREGI, ENEKO

SAGARNA, ANDONI

URDANGARIN, JOSEAN

**Euskararen Aholku Batzordearen
Komunikabideei eta Kulturgintzari buruzko Batzorde-atala**

EABko Batzorde Osoko kideak

ARIZTONDO, JOSUNE

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza
Politikarako sailburuordea. Batzordeburua

DE FELIPE, NATXO
EGUZKITZA, ANDOLIN
ERKIZIA, JOSEBA
MENDOZA, JOSE LUIS
PEREZ MENDIZABAL, XABIER "EUSKITZE"
URIBEETXABERRIA, TOMAS
ZARRAOA, IÑAKI

EABtik kanpokoak

BUJANDA, MIKEL
LERTXUNDI, ANDU
OTAMENDI, MARTXELO
TORREALDAI, JOAN MARI

Idazkaria

AIZPURUA, XABIER

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako
Sailordetzako Ikerketarako eta Euskara
Sustatzeko zuzendaria

Atxikitako funtzionarioa

MATEO, MIREN

Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko
Zuzendaritzako Informazio eta Dokumentazio
zerbitziburua

Txostengileak

BELOKI, JULIAN
DIAZ DE TUESTA, JOSE FELIX
OROBENGOA, AITOR
RODRIGUEZ, AMAIA
TORREALDAI, JOAN MARI
ZABALETA, IÑAKI
ZARRAOA, IÑAKI

Teknologia berrien inguruko lantaldea

Adituak

ALVAREZ, LUIS M.
EGIA, GOTZON
GOIA, LUKEN
OROBENGOA, AITOR
SAGARNA, ANDONI
SARASOLA, KEPA
UNZALU, ANDONI

Euskararen Aholku Batzordearen Toponimiari buruzko Batzorde-atala

Erakundeetako ordezkariak

ARIZTONDO, JOSUNE	Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako sailburuordea. Batzordeburua
ARANBURU, JOSE M ^a	Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaria
ENDEMAÑO, JOSE MARIA	Ogasun eta Herri Administrazio Saileko ordezkaria
FRAILE, SONIA	Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) ordezkaria
IZETA, JUAN IGNACIO	Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko ordezkaria
KNÖRR, HENRIKE	Euskaltzaindiko ordezkaria
PIÑA, BENJAMIN	Instituto Geográfico Nacional-eko ordezkaria
RUIZ, MANUEL M ^a	Arabako Foru Aldundiko ordezkaria
URIBARREN, PATXI	Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria

Adituak

AZKARATE, MIREN
ERKOREKA, JOSU IÑAKI
LEKUMBERRY, THERESE
LIZUNDIA, JOSE LUIS
MUJICA, NEREA
SALABERRI, PATXI

Idazkaria

AIZPURUA, XABIER

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzako Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko zuzendaria

Atxikitako funtzionarioa

ALBERDI, MIRARI

Estandarizazio teknikaria

Herri-Agintek Koordinatzeko Batzordea (HAKOBA)

ARIZTONDO, JOSUNE	Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako sailburuordea. Batzordeburua
OREGI, ENEKO	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Estrategia eta Plangintza sailburuordea
ZENARRUZABEITIA, IDOIA	Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzako Koordinazio idazkari nagusia
ZENARRUZABEITIA, ARANTZA	Gasteizko Udaleko ordezkaria
BILBAO, VICENTE	Bilboko Udaleko ordezkaria
OTAEGI, BEATRIZ	Donostiako Udaleko ordezkaria
MUJIKA, JUAN CARLOS	Arabako Foru Aldundiko ordezkaria
LEGARRETA, JUAN MANUEL	Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria
HUIZI, XABIER	Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaria
AIZPURUA, XABIER	Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzako Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko zuzendaria. Idazkaria

Lege-Garapenerako Batzorde-atala

ARIZTONDO, JOSUNE

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako sailburuordea. Batzordeburua

AGIRREAZKUENAGA, IÑAKI
ALKALDE, JOSEBA
ARRIETA, JON
ERKOREKA, JOSU
MARTÍNEZ DE LUNA, IGONE
URRUTIA, ANDRES
ZABALETA, PATXI

AIZPURUA, XABIER

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzako Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko zuzendaria. Idazkaria

Jarraipenerako Batzorde-atala

ARIZTONDO, JOSUNE

Eusko Jurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza
Politikarako sailburuordea. Batzordeburua

ALZOLA, NEREA
ARRUTI, IÑAKI
AZKARATE, MIREN
EGUZKITZA, ANDOLIN
ERKIZIA, JOSEBA
ERRAZTI, URTZA
HUIZI, XABIER
IÑIGO, JOXE JABIER
OREGI, ENEKO
OSA, ERRAMUN
SAGARNA, ANDONI
TORREALDAI, JOAN MARI
ZALBIDE, MIKEL
ZARRAOA, IÑAKI

AIZPURUA, XABIER

Eusko Jurlaritzako Hizkuntza Politikarako
Sailordetzako Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko
zuzendaria. Idazkaria

Euskararen Aholku Batzordeak prestatuturiko oinarritzko txosten eta bestelako dokumentuen ohargileak

Agirre, Esteban
Alzola, Nerea
Amorrortu, Esti
Amundarain, Dionisio
Amundarain, Joxean
Aranguren, María Jesús
Arrieta, Jon
Arruti, Iñaki
Artola, Xabier
Aurrekoetxea, Arantza
Azkarate, Miren (Euskaltzaindia-Jagon Saila)
Caridad, Leire (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua)
De Felipe Alonso, Natxo
Deba Bailarako Kirola Euskaraz
Dufau, Aines (EHE)
EDE Fundazioa, Astialdirako Heziketa Eskola
Eguzkitza, Andolin
Ekisoain, Juan Jose
Ellakuria, Arantza
Galdós, Imanol
Iñigo, Joxe Jabier (EKB)
Jauregi, Nekane
Lopez Adan, Emilio (EHE)
Mendiguren, Xabier
Mendoza, Jose Luis
Osa, Erramun
Otamendi, Martxelo
Pérez, Emilio
Pérez Mendizabal, Xabier "Euskitze"
Sagarna, Andoni
Sarasua, Jon
Sasieta, Izaskun HEZKIDE Eskola
Torrealdai, Joan Mari
Urkia, Miriam

ERANSKINA

Euskararen Aholku Batzordea eraldatzeko ekainaren 18ko 156/1996 Dekretua¹

Euskararen Aholku Batzordeak “Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak” izeneko agirian, 1993ko ekainaren 4an Batzorde Osoak onartutakoan hain zuzen, azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak ezarritako markoan oinarrituriko normalkuntza-prozesua eta lege hori garatzeko arauak aztertu eta landu zituen.

Agiri horretan jasotako gomendioen arabera, eta euskararen gizarte-erabilerak aurrera egin dezan, komenigarritzat jotzen da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egitea, datozen urteotan norabide beretik eraman ahal izan daitezen hizkuntza normalizatzeko arlokako ekintzak.

Maiatzaren 30eko 281/1995 Dekretuak, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duenak, Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren esku uzten du plan nagusia egitea eta Autonomi Elkarte osorako ekintza-planak aurkeztea, Jaurlaritzak onar ditzan.

Ildo horretatik, interesgarria da Hizkuntza Politikarako Sailordetzak egin beharreko planaren zirriborroa hizkuntza-normalkuntzarekin zerikusirik duten zenbait organismori, erakunderi eta laguni aurkeztea, beren iritzia eman dezaten. Ontzat emandako ekarpenak, hala iritiz gero, agirian txertatuko lirateke.

Euskararen Aholku Batzordea gune aproposa da hori dena gauzatzeko, baina orain arte zituen osakera eta egitekoak moldatu eta egokitu egin behar dira.

Euskararen Aholku Batzordeak, beraz, bi egiteko nagusi izango ditu: batetik, hizkuntza-normalkuntzan diharduten erakunde eta organismoetako ordezkarien harreman-organoa izango da; eta, bestetik, gizartearen arlo desberdinetan euskararen erabilera normalizatzen ari diren erakunde pribatuek eta adituek parte hartzeko gune. Horrela, bermatu egingo da hizkuntza-normalkuntzaren inguruan gerta daitekeen ikuspegi aniztasuna ordezkaturata egotea.

Bestalde, Euskal Herriaren batasun soziokulturalari eusteko eta bizitasun etnolinguistikoa sustatzeko, Euskararen Aholku Batzordean Euskal Herrietako kideak izatea bultzatuko da. Horietaz gain, herrian sendo errotutako organismoetako eta erakundeetako ordezkariak eta euskararen arloan ezagunak diren lagunak ere izango dira.

Gainera, Aholku Batzorde honen barruan, Toponimiako Batzorde-atala sortuko da. Euskal Autonomi Elkarteko toponimoak finkatu, aldatu eta berreskuratzeko aholkuak ematea eta proposamenak aurkeztea izango dira batzorde-atal honen egitekoak.

Batzorde-atal hori Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko, azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 10.1 atalean ezarritakoa betetzeari begira eratuko da. Izan ere, Euskal

¹ E.H.A.A., 125 zk., 1996ko uztailaren 1a, hutsen zuzenketa, E.H.A.A., 205 zk., 1996ko urriaren 23a.

Autonomi Elkarteko toponimia berreskuratu, finkatu eta gordetzeko lana egin beharra baitago.

Toponimiaren normalkuntzak dituen berezitasunak direla eta, Toponimiako Batzorde-atalak erregimen berezia izatea komeni da, eta eskumenik izatea kasuan kasuko herri-administrazio eskumendunei aholkuak emateko eta proposamenak egiteko.

Aipatu diren berezitasun horietan oinarrituta, halaber, Toponimiako Batzorde-atalean gai horrekin zerikusirik duten hainbat jakintza-gaitako, arlotako eta erakundetako ordezkariak izatea komeni da.

Ondorioz, Kultura sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko ekainaren 18an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT

1. atala.

Euskararen Aholku Batzordea azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 29. atalean aurreikusitako harreman-organoa izango da, hizkuntza-normalkuntzan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzeke, bideratzeko eta koordinatzeko.

Euskararen Aholku Batzordea Kultura Sailari atxikia egongo da, Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren bitartez.

2. atala.

Honako hauek dira Euskararen Aholku Batzordeak jarduteko izango dituen kide anitzeko organoak:

- Batzorde Osoa
- Batzorde-atal Iraunkorra
- Batzorde-atal bereziak

3. atala.

1.- Hona Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren osakera:

1.a Lehendakaria: Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.

2.a Kultura sailburua.

3.a Hizkuntza Politikarako sailburuordea.

- 4.a HABEko zuzendari nagusia.
- 5.a Euskal Irrati Telebista erakundeko zuzendari nagusia.
- 6.a Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak izendatutako ordezkaria, gutxienez zuzendari mailakoa.
- 7.a Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak izendatutako ordezkaria, gutxienez zuzendari mailakoa.
- 8.a Ondorengo erakundeek eta organismoek proposatuta izendatuko diren bokalak:
- a) hiru foru aldundietako ordezkari bana, gutxienez zuzendari mailakoak;
 - b) Euskal Udalen Elkarteko (EUDEL) ordezkaria;
 - c) Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) ordezkaria;
 - d) Euskaltzaindiko ordezkaria.
- 9.a Gehienez ere beste hogeita bost bokal. Hizkuntza-normalkuntzaren prozesuan eraginik duten arloetako pertsona ezagunen artean aukeratuko dira bokal horiek. Kultura sailburuak proposatuko ditu bokalen kopurua eta zerrenda, eta Euskal Herrietako ordezkariak izateari begiratuko zaio².
- 10.a Idazkaria: Hizkuntza Politikarako Sailordetzako Ikerketa eta Informaziorako zuzendaria.

2.- Batzorde Osoaren bileretara, eztabaidatzekoak diren gaietako adituak eraman ahal izango dira. Aditu horiek hitza izango dute baina ez botorik.

4. atala.

1.- 3.1 ataleko 6, 7, 8 eta 9. idazatietan aipatutako bokalak Dekretu bidez izendatuko dira, Kultura sailburuaren proposamenez.

2.- Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko bokalen kargualdia bi urtekoa izango da, eta kargualdi hori berriztatzerik izango da.

3.- 3.1 ataleko 6, 7 eta 8. idazatietan adierazitako Aholku Batzordearen Batzorde Osoko bokalen artean hutsik izanez gero, horren berri emango zaio proposamena edo aukera egin duen erakunde edo organoari, geratzen den kargualdirako beste bokal bat proposatu edo aukera dezan hilabeteko epean.

² Uztailaren 16ko 183/1996 Dekretuak emandako idazketa (E.H.A.A., 125 zk., 1996ko uztailaren 1a).

5. atala.

1.- Aholku Batzordearen Batzorde Osoko lehendakariari dagokio Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 23.1 atalean kide anitzeko organoetako lehendakariari aitortutako egitekoak betetzea. Erabakiak hartzerakoan berdinketarik gertatuz gero, lehendakariaren botoak ebazte-indarra izango du.

2.- Aholku Batzordearen Batzorde Osoko lehendakari kargua hutsik egonez gero, edo bera kanpoan nahiz gaixorik izanez gero, edo bestelako legezko arrazoirik gertatzen bada, Kultura sailburuak, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eta Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak ordezkaturako dute, hurrenkera horretan hain zuzen.

6. atala.

1.- Aholku Batzordearen Batzorde Osoko idazkariak hitza eta botoa izango ditu Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren bileretan, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 25.3 atalean kide anitzeko organoetako idazkariari aitortutako egitekoak izango ditu.

2.- Aholku Batzordearen Batzorde Osoko idazkariak, halaber, Euskararen Aholku Batzordeko batzorde-atal berezien koordinazio-lanak egingo ditu.

3.- Aholku Batzordearen Batzorde Osoko idazkari kargua hutsik geratzen bada, edo bera kanpoan nahiz gaixorik izanez gero, edo bestelako legezko arrazoirik gertatzen bada, lehendakariak izendaturako duen bokalak ordezkaturako du.

7. atala.

Hona Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren egitekoak:

- a) Jaurlaritzak eskatuta, Euskal Autonomi Elkarteko hizkuntza normalkuntzari buruzko gaiak aztertzea eta ikertzea.
- b) Euskararen erabilerari buruzko xedapenak ondo ezartzeko behar diren neurriak proposatzea Jaurlaritzari eta dagokien erakundeei.
- c) Hizkuntzari loturiko gaietan eskumenik duten aginte publikoen jarduera koordinatua bermatzeko neurriak proposatzea.
- d) Hizkuntza Politikarako Sailordetzak egingo duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren zirriborroari buruzko txostena egitea, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztu baino lehen.

- e) Batzorde-atal Iraunkorrak egingo duen ekintzen urteko oroitza onartzea.
- f) Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu ondoren, Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak ekintzen urteko oroitza txertatuko du Plan horren garapenaren ebaluazioa.
- g) Legeek edo erregelamenduek aitortutako beste edozein egiteko.

8. atala.

Batzorde-atal Iraunkorreko kide izango dira:

- a) Lehendakaria
- b) Kultura sailburua
- c) Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Estrategia eta Plangintza sailburuordea
- e) Idazkaria
- f) Bost bokal, Batzorde Osoak bere kideen artean hautaturikoak³.

9. atala.

Hona Batzorde-atal Iraunkorraren egitekoak:

- a) Euskararen Aholku Batzordearen gaien ohiko tramitazioa, Batzorde Osoaren bilerarik ez denean.
- b) Aholku Batzordearen ekintzen urteko oroitza egitea, Batzorde Osoak onar dezan.
- c) Legeek, erregelamenduek edo Aholku Batzordearen Batzorde Osoak agindutako beste edozein gai.

10. atala.

1.- Aholku Batzordearen Batzorde Osoak gutxienez urtean behin egingo du ohiko bilera. Bilduko da, halaber, lehendakariak dei egindakoa.

2.- Batzorde-atal Iraunkorra hiru hilabetez behin bilduko da gutxienez.

³ Uztailaren 30eko 208/1996 Dekretuak emandako idazketa (E.H.A.A., 154 zk., 1996ko abuztuaren 13a).

11. atala.

1.- Gai zehatzei buruzko lanak eta txostenak egiteko, batzorde-atal bereziak eratu ahal izango dira, Aholku Batzordearen Batzorde Osoak erabakiz gero.

Batzorde-atal bereziak iraunkorrak izan daitezke, eta eratzeko erabakian jasotakoarekin bat etorritz jardungo dute.

2.- Batzorde-atal berezi horien egitekoak izango dira: Batzorde Osoari eta Batzorde-atal Iraunkorrari beren egitekoak betetzen laguntzea eta Euskararen Aholku Batzordeak eska ditzan oinarritzko azterketak egitea.

3.- Batzorde-atal berezien jarduketa Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren orientazio eta jarraibideei lotuko zaie, eta jarduketa horri buruz eska diezazkien argibide guztiak emango dizkiote Batzorde Osoari.

4.- Batzorde-atal berezien osakera bakoitzaren eratze-erabakiaren arabera izango da. Kideak, bestalde, Aholku Batzordeari aitorturiko egitekoekin zerikusirik duten lagunak izango dira, harreman-organo horretako kideak izan edo ez.

12. atala.

Euskararen Aholku Batzordearen batzorde-atal bereziek Hizkuntza Politikarako sailburuordeak aukeratutako Hizkuntza Politikarako Sailordetzako funtzionario baten edo gehiagoren laguntza izango dute.

13. atala.

Euskararen Aholku Batzordearen barruan Toponimiako Batzorde-atala eratuko da, kontuan hartzekoa baita, batetik, toponimia normalizatzeko lanen izaera eta berezitasuna eta, bestetik, toponimoak ofizial egiteko administrazio askok parte hartzen dutela. Batzorde-atal hori iraunkorra izango da eta Euskal Autonomi Elkarteko toponimoak finkatu, aldatu eta berreskuratzeko aholkuak eta proposamenak egingo ditu. Bestalde, hurrengo ataletan ezarritako araubide berezia izango du.

14. atala.

1.- Hona Toponimiako Batzorde-atalaren osakera:

a) Lehendakaria: Hizkuntza Politikarako sailburuordea.

b) Idazkaria: Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko idazkaria.

c) Bokalak:

- Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko ordezkaria, kartografia arloan

eskumena duen antolaketa atalekoa hain zuzen.

- Ogasun eta Herri Administrazio Saileko ordezkaria, toki araubidearen arloan eskumena duen antolaketa atalekoa.
- Euskal Autonomi Elkarteko lurralde historikoetako foru aldundietako ordezkari bana.
- Euskal Udalen Elkarteko ordezkaria, elkarte horrek izendatua.
- Institutu Geografiko Nazionaleko ordezkaria.
- Euskaltzaindiko kidea, erakunde horrek izendatua.
- Gehienez ere beste lau bokal. Bokal horiek Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuko ditu toponimiako eta euskarako aditu ezagunen artean.

2.- Toponimiako Batzorde-ataleko bokalak Hizkuntza Politikarako sailburuordearen Erabaki baten bidez izendatuko dira eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko bokalekin batera utziko dute kargua azken hauen kargualdia bukatzean.

Toponimiako Batzorde-ataleko bokalek kargualdi bat baino gehiago izan dezakete.

15. atala.

Toponimiako Batzorde-ataleko bokalen artean, beste erakunde edo organo batek proposatutako edo aukeratutakoaren artean hain zuzen, hutsik gertatuz gero, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak horren berri emango dio bokala proposatu edo aukeratu zuen erakundeari edo organoari. Erakunde edo organo horrek hilabete izango du geratzen den kargualdirako beste bokal bat proposatzeko edo aukeratzeko.

16. atala.

Toponimiako Batzorde-atalak honako egiteko hauek izango ditu:

- a) Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioari aholkuak ematea Euskal Autonomi Elkarteko toponimoak bildu, berreskuratu, zerrendatu eta gordetzeko beharrei eta lehentasunei buruz.
- b) Kasu bakoitzean eskumena duen administrazioak eskatzen duen guztietan, izen ofizialen normalizazioari buruzko aholkuak ematea.
- c) Mapetan, liburuetan, errotuluetan eta komunikabideetan, orokorrean, toponimoak erabiltzeko eta idazteko irizpideak eta arauak proposatzea.
- d) Toponimia arautzeko Eusko Jaurlaritzak egin ditzan xedapen orokorrei buruzko

txostena egitea, eta Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, toponimoen izen ofizialak aldatzeko edo egokitzeko eska ditzaten irizpenak ematea.

- e) Batzorde-atalaren ekintzen urteko oroitza egitea eta Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde-atal Iraunkorrari aurkeztea Euskararen Aholku Batzordearen urteko oroitza sartzeko.
- f) Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoak toponimiaren arloan eska diezazkion oinarrizko azterketak egitea.

17. atala.

Euskararen Aholku Batzordeko eta bere batzorde-atal berezietako kideek jardunagatik izandako gastuen ondoriozko kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango dute, eta horretarako otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta bestelako xedapen osagarri eta garapenezkoetan finkatutako kopuruak ezarriko dira.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

Lehena: Euskararen Aholku Batzordeak kontuan izan beharko ditu bere egitekoak gauzatzerakoan, antzeko organismoen, eta, bereziki, euskararen lurraldeetako organismoen jarduketak. Aholku Batzordeak organismo horiekiko harremanak eta lankidetzak sustatuko ditu, Euskal Herriaren batasun soziolinguistikoari eusteko eta bizitasun etnolinguistikoa bultzatzeko.

Bigarrena: Euskararen Aholku Batzordeak dekretu honetan ezarritako jarduerak osatzerik izango du. Ezarriko ditu, halaber, batzorde berezi guztien jarduerak arauak.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indarrik gabe geratzen dira maila bereko edo txikiagoko xedapenak eta, bereziki, abenduaren 15eko 370/1987 Dekretua, eta maiatzaren 30eko 281/1995 Dekretuaren 6.3 atala, dekretu honetan ezarritakoaren aurkakorik diotenetan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena: Dekretu honetan ezarri ez direnetan eta Euskararen Aholku Batzordeak onar ditzan jarduerak arauetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legean kide anitzeko organoei buruz zehaztutakoa izango da ezargarri.

Bigarrena: Kultura sailburuari eskumena ematen zaio dekretu hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena: Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen , 1996ko ekainaren 18an.

Lehendakaria
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO

Kultura sailburua
M. CARMEN GARMENDIA LASA